



---

# LEHIA ETA HILETA- ZERBITZUAK EUSKADIN

2024

---



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

© Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca  
de la Competencia, 2024

Argitalpena: Lehiaren Euskal Agintaritza/  
Autoridad Vasca de la Competencia

LG: BI-00101-2025

# AURKIBIDEA

I. LABURDURAK .....	6
II. LEGEDIA .....	7
III. AURREKARIAK .....	9
IV. ARAU-ESPARRUA .....	10
1. Hitzaurrea .....	10
2. Sektore liberalizatua .....	10
3. Sektore-arauak .....	12
4. Legediaren eguneratze beharra .....	13
V. HILETA-MERKATUAK .....	14
1. Heriotzak .....	14
2. Merkatuak .....	14
VI. HILETA-ZERBITZU INTEGRALAK .....	16
1. Txikizkako merkatua .....	16
2. Hautaketa irizpideak, prezioak eta ikuspegiak .....	17
3. Zuzeneko eta bitarteriko eskaria .....	19
4. Hileta-zerbitzua eskaintza .....	21
4.1. Ehorztetxeak .....	21
4.2. Kontzentrazioa: enpresa tradizionalak, hileta-taldeak eta enpresa handiak .....	23
4.3. Integrazio bertikala .....	25
5. Kontzentrazioa eta merkatu-boterea .....	25
5.1. Araba .....	26
5.2. Bizkaia .....	26
5.3. Gipuzkoa .....	29
5.4. Ondorioa: merkatuak eta kontzentrazioa .....	30
6. Aseguru-etxeak eta ehorztetxeak .....	33
6.1. Heriotza-asegurua .....	33
6.2. Ehorztetxeen hautaketa .....	34
6.3. Kontzentrazioa eta integrazioa .....	35
6.4. Ehorztetxeak eta aseguru-taldeak EAEn .....	37
6.5. Heriotza-aseguruen merkatua EAEn. Kontzentrazioa .....	37
7. Sarrerako oztopoak .....	39
VII. HILETA-GARRAIOKO ZERBITZUAK .....	41
VIII. BEILATOKI-ZERBITZUAK .....	42

IX. ERRAUSKETA-ZERBITZUAK .....	47
X. HILERRI-ZERBITZUAK .....	50
XI. BESTELAKO OZTOPAK: OSPITALEAK ETA EGOITZAK .....	51
XII. ONDORIOAK .....	53
XIII. GOMENDIOAK .....	55

#### GRAFIKO AURKIBIDEA

1. Grafikoa. Heriotzak EAEn (kopurua) .....	14
2. Grafikoa. Hileta-merkatuak: txikizkakoak eta handizkakoak .....	15
3. Grafikoa. HHI konparazioa: diferentziala (2009-2023) .....	31

#### MAPA AURKIBIDEA

1. Mapa. EAeko Merkatuak .....	17
--------------------------------	----

#### TAULA AURKIBIDEA

1. Taula. Ehorzketa prezioak. 2021 .....	18
2. Taula. Ehorztetxeak. EAE 2023 .....	22
3. Taula. Hileta-taldeak eta enpresa handiak EAEn. 2024 .....	24
4. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arabako Kantaurialdea eskualdean. 2023ko HHI .....	26
5. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arabako Errioxa eskualdean. 2023ko HHI. ....	26
6. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Araba Erdialdean (Vitoria- Gasteiz eta alboko eskualdeak). 2023ko HHI .....	26
7. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arratia-Nerbioi eskualdean. 2023ko HHI. ....	26
8. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Durangaldean. 2023ko HHI. ....	27
9. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Bilbo Handia eskualdean. 2023ko HHI. ....	27
10. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Bilbo Handiko azpieskualdeetan. 2023ko HHI .....	27
11. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Enkarterria eskualdean. 2023ko HHI. ....	28
12. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Gernika-Bermeo eskualdean. 2023ko HHI. ...	28
13. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Markina-Ondarroa eskualdean. 2023ko HHI... 28	
14. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Plentzia-Mungia eskualdean. 2023ko HHI. ...	28
15. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Debagoiena eskualdean. 2023ko HHI. ....	29
16. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Bidasoa Behera eskualdean. 2023ko HHI .....	29
17. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Debabarrena eskualdean. 2023ko HHI .....	29
18. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Donostialdean. 2023ko HHI .....	29
19. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Donostialdeko azpieskualdeetan. 2023ko HHI. ....	30
20. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Goierri eskualdean. 2023ko HHI .....	30
21. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Tolosaldean. 2023ko HHI .....	30



22. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Urola Kosta eskualdean. 2023ko HHI.....	30
23. Taula. 2023 urteko merkatu-kuota laburpena eskualdez eskualde. 2023ko HHI.....	31
24. Taula. % 40 baino gehiagoko merkatu-kuota duten ehorztetxeak. 2023.....	32
25. Taula. Integrazioa: ehorztetxeak eta aseguru-taldeak. EAE. 2024 .....	37
27. Taula. Heriotza-asegurua. Kuota, lurralde historikoaren eta aseguru-taldearen arabera (%). 2023.....	38
28. Taula. Beilatoki-instalazioak. EAE 2023 .....	43
29. Taula. Jabetza publikoko beilatokiak: zerbitzu emate tasa eta prezio publikoak 2024.....	44
30. Taula. Errausketa-labe publikoak: errausketa-zerbitzu emate tasa eta prezio publikoak. 2024 .....	48
31. Taula. Errausketa-labe instalazioak. EAE 2023 .....	49



---

## I. LABURDURAK

---

ACCO	LEHIAREN KATALUNIAKO AGINTARITZA
ACREA	LEHIAREN ETA ERREGULAZIO EKONOMIKOAREN ANDALUZIAR BULEGOA
MLBN	MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA
EAE	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
HHI	HERFINDAHL-HIRSCHMAN INDIZEA
LEA/AVC	LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA
OCU	KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ERAKUNDEA
PANASEF	HILETA ZERBITZUEN ELKARTE NAZIONALA
SECUM	MERKATU BATASUNEN BATZORDEAREN IDAZKARITZA
EBJA	EUROPAR BATASUNEN JUSTIZIA AUZITEGIA
AG	AUZITEGI GORENA

---

## II. LEGEDIA

ARAUA	LABURDURA
2263/1974 Dekretua, uztailaren 20koa, Hilotzen Alderdi sanitarioen Poliziari buruzko Erregelamendua onartzen duena	<a href="#">HSPE</a>
<a href="#">202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena</a>	
2006/123/EE Zuzentaraua, Barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa	<a href="#">Zerbitzuen Zuzentaraua</a>
50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuari buruzkoa	<a href="#">AKL</a>
<a href="#">49/1978 Legea, azaroaren 3koa, Udal-hilerrietan ehorzteari buruzkoa</a>	
7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena	<a href="#">TAOL</a>
14/1986 Legea, apirilaren 25koa, Osasunaren Lege Orokorra	<a href="#">OLO</a>
16/1987 Legea, uztailaren 30koa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa	<a href="#">LOTT</a>
<a href="#">24/2005 Legea, azaroaren 18koa, Produktibitatea bultzatzeko erreformei buruzkoa</a>	
15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzko	<a href="#">LDL</a>
<a href="#">34/2007 Legea, azaroaren 15koa, Airearen Kalitateari eta Atmosferaren babesari buruzkoa</a>	
<a href="#">17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa</a>	
25/2009 Legea, abenduaren 22koa, Zenbait lege aldatzen dituena, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartu eta aritzeari buruzko Legea egokitzeko	<a href="#">Aterki Legea</a>
1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa	<a href="#">LEAL</a>
5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena	<a href="#">BGAEL</a>
<a href="#">12/2012 Legea, abenduaren 26koa, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzekeo premiazko neurriei buruzkoa</a>	
20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatu-batasuna bermatzeko	<a href="#">MBBL</a>
<a href="#">20/2015 Legea, uztailaren 14koa, Aseguru eta Berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa</a>	



ARAUA	LABURDURA
<a href="#">2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa</a>	<a href="#">ETEL</a>
<a href="#">9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena</a>	<a href="#">SPKL</a>
<a href="#">10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena</a>	
<a href="#">4/2023 Legea, apirilaren 27koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena</a>	
<a href="#">13/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena</a>	
<a href="#">Agindua, 2019ko abenduaren 26koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, Aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeak arautzekoa -borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko</a>	
<a href="#">1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeen ondasunen araudia onesten duena</a>	
<a href="#">1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena</a>	
<a href="#">3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, Premiazko neurriei buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan Europar Batasunaren hainbat zuzentarau txertatzen dituen sektore jakin batzuetako kontratazio publikoaren esparruan; aseguru pribatuen arloan; pentsio-plan eta -funtzen arloan; zergen arloan eta zerga-auzien arloan</a>	



### III. AURREKARIAK

Hileta bat ordainketa esanguratsua izan daiteke babesgabetasun bereziko egoeran aurkitzen den kontratatzailearentzat. Hori dela eta, garrantzitsua da hileta-zerbitzuak erosten dituztenek konfiantza izatea haien baldintzak (prezioak, kalitatea, zerbitzu-barietatea, etab.) bat datozela lehia eraginkorrek onura guztiak dituen merkatu batean gertatzen direnekin.

2009 urtean [LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK](#) "(LEA/AVC) "Hileta-zerbitzuen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan" ([Hileta-sektorea 2009](#)) azterketa burutu zuen, non lehiaren ikuspuntutik sektorearen deskribapen bat egiten zen eta hainbat jarduketa proposatzen ziren.

Igaron den denboran, sektorea bereziki dinamikoa izan da eta hainbat aldaketa gertatu dira, batez ere enpresa konfigurazioan eragina izan dutenak.

Halaber, lehiaren aurkako jokabide berriak detektatu dira eta [Lehiari Defentsari buruzko Legea \(LDL\)](#) ezarri zaie. Jokabide hauei kargu hartu nahi zaie, ez errepikatzeke eta merkatu honetan lehia libre eta leiala bermatzeko. Izan ere, hileta-zerbitzuek –zeinek bere ikustera integralean garraio-, beilatoki-, hilerri- eta errausketa-zerbitzuak hartzen dituzte– lehiaren ikuspuntutik kasuistika zabala erakutsi dute eta erakusten dute.

Izandako aldaketak eta jokabideak kontuan hartuta, gura da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hileta-sektoreko lehiaren egoeraren informazioa eguneratu, aldaketak eta etorkizuneko joerak aurkeztu; baita ere jarduketa marko bat ezarri, lehia zaintzen lagunduko duena, ahaztu gabe erabiltzaileen egoera emozionalak eta aurrez finkatutako lege-baldintzen mende dauden zerbitzu-premia oso bereziak biltzen dituen sektore bat dela.

Txosten honek, hasieran, arau-esparrua aztertzen du, ondoren EAEko hileta merkatu ezberdinetan eta haiei lotutakoenetan sakontzen du eta, bukatzeko, ondorioak eta hainbat gomendio jasotzen ditu, azkeneko hauek aipatutako merkatuen funtzionamendu lehiakorra hobetzera bideratuak.

LEA/AVCn gure helburua da Euskadin lehia librearen eta gardentasunaren baldintzak merkatuan hobetzea. Lan horren zehaztasunak gure [2024-2028 Plan Estrategikoan](#) kontsulta daitezke eta 2024an [2024 Ekintza Planean](#) irudikatzen da, non ikerlan hau merkatu zaintza proaktiboan txertatzen den.

Bestalde, [Lehiaren Euskal Agintaritzaren 1/2012 Legeak](#) bere 3.3 artikuluan merkatuetako lehia sustatzea LEA/AVCren esku uzten du, hurrengoko funtzioen bitartez: a) lehiaren inguruko azterlan eta ikerlanak sustatu eta egitea; eta b) sektoreei buruzko txosten orokorrak egitea, eta horietan, benetako lehia egoteko konpondu edo hobetu beharrekoak hobetzen laguntzeko proposamenak jasotzea.

Dena den, txosten hau orotarikoa da, lehiaren aurkako jokabide baten edo kontzentrazio-eragiketa baten analisi espezifikoa gidatzen duten premisetatik –"kasuz kasu"– oso bestelako premisetatik abiatzen da eta, beraz, ondorioak ez dira nahitaez aplikagarriak kasu espezifiko horietan.

Azkenik, adierazi nahi da txosten honetan terminologia sinplifikatzearen, "hileta-zerbitzuak" esamoldea erabiltzen dela "hilotz-zerbitzuak" adieran, inplikaturako zerbitzu guztiak barne hartzen dituen: garraioa, beilatokia, errausketa eta ehorzketa, eta bat dator Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) epigrafearekin: 979.1. Hileta-zerbitzuak.



## IV. ARAU-ESPARRUA

### 1. HITZAURREA

Hileta-zerbitzuek barne hartzen dituzte pertsona baten heriotzatik haren ehorzketa edo errausketara arte egiten diren jarduera guztiak<sup>1</sup>, bakoitza bere berezko araudiaren menpe.

Emandako zerbitzuak askotarikoak eta heterogeneoak direnez, hileta-zerbitzuen sektoreari aplikatu dakioken lege-esparruaren ezaugarria da, alde batetik, hainbat motatako arauak eragitea: hilotzen osasuna, hilotzak garraiatzea, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestea, hirigintza eta lurralde-antolamendua, ingurumena, besteak beste; eta beste alde batetik, hainbat administrazio (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa) arauz esku hartzea, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

### 2. SEKTORE LIBERALIZATUA

1996an liberalizatu zen hileta-zerbitzuen sektorea. Ordura arte, udalerriek eskumen ugari zituzten, bereziki, udal ehorztetxeetan<sup>2</sup> ikusten zirenak. Geroztik, kendu egin zen hileta zerbitzuak toki-erakundeentzat erreserbatutako funtsezko zerbitzutzat hartzea, zerbitzu horiek emateari monopolioa utzi baitzioten, eta operadore pribatuei merkaturia ireki zitzaie, eta, ondorioz, prezioak ezartzeko askatasuna eman zitzaie.

1 Kontuen Epaitegia, «[Hileta- eta hilerri-zerbitzuen kudeaketaren ikuskatzeari buruzko txostena](#)», 2006ko uztailaren 20koa. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa «[Hileta-zerbitzuei buruzko azterlan Espainian](#)», 2010eko ekainaren 28koa

2 Liberalizazioa eta gero, ehorztetxe publiko eta pribatuen arteko borrokak –prozedura judizialak eta guzti– udal enpresen egitura aldaketa eragin zuen. Bilbori dagokionez, [SERVICIOS FUNERARIOS DE BILBAO, S.L.](#) udal enpresa Bilboko, Begoñako eta Deustoko hilerri eta errausketa-labe kudeaketan dihardu, eta [SERVICIOS FUNERARIOS DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN, S.A. \(POLLOE\)](#) enpresak, ordea, hilerri eta errausketarekin eta Altxako beilatokiarekin zerikusia duten zerbitzu guztiak kudeatzen ditu.

Liberalizazioa eta gero, udalerrien berezko eskuduntzak hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendu, plangintza, kudeaketa eta osasun-kontrolera mugatzen dira<sup>3</sup>. Zehazki, hilerriak zerbitzu publikoko ondasuntzat hartzen dira, alegia, tokiko erakundeek<sup>4</sup> erantzukizun-helburu publikoak betetzera zuzenean bideratutako baliabideak dira, hilerri-zerbitzuak ematera behartuta daudenak.

Hilotzak garraiatzeko zerbitzuetan –Espainiako lurralde osoan egin ahal dira– edo ehorzketa-zerbitzuetan, udalek baimen arautuaren mende jarri ahal izango dituzte hileta-zerbitzuak emateari buruzko alderdiak, arauz zehaztutako baldintza objektiboekin (bide-segurtasuneko, osasuneko, ingurumeneko eta abarreko sektore-erregulazioa) –Estatuak eta autonomia erkidegoek finkatzen dituzten gutxieneko irizpideekin bat etorritik–, eta baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaile guztiei baimen hori emango zaie.

Nolanahi ere, sektorearen liberalizazioa ahultzen duten eskakizunik ezin dira ezarri; hori dela eta, geroago azalduko den bezala, ezin da hileta-zerbitzuen eta beilatokiako instalazioak irekitzearen inguruko lizentziarik eskatu.

Orobat, udalek hileta kontuak erregula dezakete udal-ordenantza bitartez, baldin eta beti zerbitzu-merkatuetan justifikatuak eta neurrikoak ez diren murrizketak sartzen ez badituzte eta zerbitzuak ezartzeko eta emateko askatasuna bermatzen badute<sup>5</sup>.

3 [2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa](#) (17.12 artikulua); [7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen](#) (25.2.k artikulua); 26.1.a) artikulua udalerririk guztiak hilerri-zerbitzuak ematera behartzen baditu ere, hileta-zerbitzuetarako ez du betebeharririk ezarri.

4 [1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakunde-ondasunen araudia onesten duena](#) (4. artikulua).

5 ACCO. [Hileta-zerbitzuei buruzko udal-ordenantza eta araudiak](#)



2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zuzentarauak buruzkoa<sup>6</sup> (Zerbitzu Zuzentaraua), beharrezko xedapen orokorrak ezarri zituen zerbitzu-emaielen ezarpen-askatasuna eta zerbitzuen zirkulazio askea errazteko, honako arautze printzipio hauen arabera: beharrezko (interes orokorreko premiazko arrazoi batek justifikatutako betekizunak), proportzionaltasuna (lortu nahi den helburua betetzen dela bermatzeko egokiak diren baldintzak, helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago ez doazanak eta emaitza bera lortzea ahalbidetzen duten neurri ez hain murriztaileekin ordezkatu ezin daitezkeenak) eta diskriminaziorik eza. Era berean, estatu kideek, Komunitateko legeriarekin bat etorritik, ezar dezakete zer jotzen duten interes ekonomiko orokorreko zerbitzutzat<sup>7</sup>.

Zuzentarau horren transposizioaren ondorioz<sup>8</sup>, Gobernuari azterlan bat egiteko agindu zitzaion, eta, hala bazegokion, hileta-zerbitzu emaielak aukeratzeko askatasuna bermatzeko beharrezkoak ziren lege aldaketak proposatzea ere, heriotza-asegurua kontratatu zen kasuetan barne, bai eta indarrean zegoen araudiaren ondorioz sor zitezkeen beste oztopo batzuk ezabatzea bultzatzeko ere<sup>9</sup>.

<sup>6</sup> [Lehia arloa egokitzeko gida](#), 2016ko maiatzeko. Ref. N.º GU 04/2016.

<sup>7</sup> [17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa](#), jasota.

<sup>8</sup> Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2003ko otsailaren 27koa, C-373/00 Gaian, [\[ECLI:EU:C:2003:110\]](#): garatutako eskumen bat egonda ere, horrek bakarrik ez du esan nahi merkataritza- edo industria-izaera ez duen interes orokorreko premiarik ez dagoenik. Hauxe erabakitzen da 2. puntuan: «Hileta- eta ehorztetxe-jardueran interes orokorreko premia bati erantzun diezaiokete. Heriotza-ziurtagiria eman eta epe jakin bat pasa ondoren inor ez bada arduratzen, tokiko erakunde publiko batek legezko betebeharra du hiletan ardura hartzeko eta, hala badagokio, bere kostua bere gain hartzeko. Zirkuntantzia hori interes orokorreko premia horren seinale da». EAE, [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hiltzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#), 34. artikuluaen arabera, euren udal mugartean hiltzen diren behartsuentzako hileta-zerbitzuen kostuak euren gain hartu beharko dituzte EAEko udalek.

<sup>9</sup> [25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko](#) (Aterki Legea).

<sup>10</sup> [25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko](#) (Zazpigarren xedapen gehigarria).

Ondorioz, [12/2012 Legea, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa](#), (2. eta 3. artikuluek eta eranskinak) ehorztetxeei dagokionez<sup>10</sup> hurrengo ezartzen du: «sektore publikoko administrazio eta erakundeek ezin izango diete eskatu funtzionamendu edo jarduera instalazioetarako aurretiko lizentzia ateratzea, ezta merkataritza-jarduera jarduteko edo dagokion establezimendua irekitzeko aurretiko baimena izatera derrigortzen duten beste lizentzia antzeko edo analogorik», salbu eta azalera 750 m<sup>2</sup>-tik gorakoa bada, edo ondare historiko-artistikoan edo jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboan eta okupazioan eragina badu.

Auzitegi gorenak, hileta-zerbitzuei dagozkien administrazio- edo merkataritza-jarduerari ez ezik, beilatokirako instalazioak irekitzeari ere aplikatzen da<sup>11</sup>.

Azkenik, [20/2013 Legea, abenduaren 9koa, merkatu-batasuna bermatzeko](#) (LMBB), Espainiar lurralde osoan ordena ekonomikoaren osotasuna bermatzeko xedapenak jasotzen ditu, baita merkatuaren eskala- eta hedadura- ekonomien ustiapena erraztekoak ere, jarduera ekonomikoari sarrera libre eta haren jardute eta hedapenaren bitartez, haren gainbegiratze egokia bermatuz.

Ondorioz, hileta-zerbitzuen sektorea lehia askearen mende dago, eta horren erregulazioan honako printzipio hauek errespetatuko dira: beharra, proportzionaltasuna, diskriminaziorik eza eta lehiari ahalik eta gutxien eragitea. Horregatik, interes orokorreko premiazko arrazoiek justifikatu behar dituzte jardueran hasteko edo aritzeko ezartzen diren mugak, eta proportzionalak izan behar dute.

<sup>10</sup> Jarduera hau ez dator Jarduera Ekonomikoen Zergaren (JEZ) 979.1 epigrafearekin (Hileta-zerbitzuak), 20/2013 Legearen eranskinean adierazten den bezala.

<sup>11</sup> Auzitegi Gorenaren 3630/2018 Epaia, 2018ko urriaren 8koa, bigarren F.D. [\[ECLI:ES:TS:2018:3630\]](#)

### 3. SEKTORE-ARAUAK

Hileta-sektorea sektore-arau ugariz araututa dago eta udalerriei dagozkie plangintza, ingurumen- eta osasun-baimen eta kontrolak, kasua bada.

Hileta-zerbitzuei dagokionez, eta hileta osasuneko araudia jarraituz, hurrengoko zerbitzuak bereizi daitezke: hileta-zerbitzuak, hilkutxa garraioa tarteko eta hilerrira arte, beilatoki-zerbitzuak, osasun-praktikak hilotzetan (tanatopraxia), eta errausketa- (isuri kontrolen mende) eta hilerri-zerbitzuak.

Zentzu horretan, argigarria da Auzitegi Gorenaren (AG) 9243/1990 Epaia ([ECLI:ES:TS:1990:9243](#)), beilatoki baten jarduerarako udal-lizentzia batek baimentzen duen industria-erabilera izaera erabakitzerako orduan. Horrela itxuratu eta laburbildu zituen zerbitzuak:

«[...] ehorztetxe baten berariazkoak, hala nola: hilotza jasotzea beilatokira eramateko; hilkutxaren garraioa hilerrira; kasuko agirien izapidetza; eskelen argitaratze, lorekoro, hilkutxa, ehorzketa eta hildakoarentzako gainontzeko zerbitzuen kudeaketa, besteak beste: autopsia-, gantzuketa- eta prestakuntza-aretoak, hileta-anbulantziarako biltegi eta garajeak, hildakoa hileta momentura arte bere senide eta lagunekin egoteko beilak, eraikina joaten direnentzat taberna/kafetegia, hiletak emateko kaperak, komunak eta bestelako zerbitzuak. Hortik ondorioztatzen da jarduera hori ez dela osasun-eta erlijio-jarduera bat bezala ulertu behar, nahiz eta zenbait alderdietan arlo horiek parte hartzen duten, baizik eta jarduera ekonomiko bat bezala ulertu behar dela, eta horrela adierazi zuen udal-ingeniariak txosten batean, jardueran ez direlako osasun-edo erlijio-arloak (edo biak batera) nagusitzen eta jarduera konplexua delako, non zenbait osasun-eta erlijio-helburu betetzen diren arren, funtsa industria-eta merkataritza-arloan darabilelako, non eginbehar guztien burutzea publikoari eskaintzen zaion, usadio sozialaren arabera, hilotzen ehorzketarako, jarduera hau burutu behar dutenek ez daitezkeen pertsonalki horri buruz arduratu behar».

EAEn, [202/2004 Dekretuak, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#)<sup>12</sup>, hileta-

<sup>12</sup> Estatu mailan, [2263/1974 Dekretua, uztailaren 20koa, zeinaren bidez Hilotzen alderdi sanitarioen polizia buruzko Erregelamendua onartzen da](#) (HSPE), hileta-zerbitzuen alderdi jakin batzuk dua onatzen dituen Konstituzioa baino leheneko araua, oraindik indarrean dago. Osagarri bezala aplikatzen da beren araudi propioa hartu ez duten erkidego autonomoetan eta berezko araudia daukatenetan, bakarrik arautuak ez dauden alderdietan. Gainera, nazioarteko lekualdatzei dagokionez, dekretu honetan adierazitakoa erkidegoko autonomo guztietan ezartzen da.

osasuna arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ehorztetxe, beilatoki, errausketa-labe eta hilerrientzako baldintzak ezarri<sup>13</sup>.

Osasun-esparruan<sup>14</sup>, udalei ardura minimoa esleitzen zaizkie osasun-arau eta -planen nahitaezko betetzeari dagokionez, hilerrien eta hilotzen alderdi sanitarioen poliziaren osasun-kontrolari dagokiolarik<sup>15</sup>.

EAE esparruan, [13/2023 Legeak, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena](#)<sup>16</sup>, Udalei dagokiela, bakoitzak bere lurralde eremuan, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea nabarmentzen du eta, beste ahalmenen artean, hurrengoak esleitzen dizkie: ingurumen, jarduera, industria, zerbitzu, eraikin, etxebizitza eta bizikidetzatoki eta herritarren osasunean eragin dezaketen establezimendu ororen osasun-kontrola; ikuskatze eta berrespen ahalak, eta [2/2016 Legearen, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa](#), arabera definitzen den edozein eskumen propio edo eskuordetu.

Errausketa atmosfera kutsatu dezaketen jarduera katalogoaren barne dago eta erkidego autonomoen baimen administratiboaren kontrola eta menderatzea ezartzen da, haren eraikuntza, muntaketa, ustiapena, lekualdaketa edo funtsezko aldakuntzarako<sup>17</sup>.

<sup>13</sup> Erkidego autonomo gehienek hilotzen alderdi sanitarioen polizia arloan araudia burutzea hautatu zuten, Katalunia izan ezik. Han lege maila daukan arau batek erregulatzen du, jardueraren trataera integrala burutzearen.

<sup>14</sup> [14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa, Osasunaren Lege Orokorra](#) (43.2 e artikulua).

<sup>15</sup> Jarduera hau [49/1978 Legean, azaroaren 3koa, Udal-hilerrietan ehorzteari buruzkoa](#) eta [2263/1974 Dekretuan, uztailaren 20koa, zeinaren bidez Hilotzen alderdi sanitarioen polizia buruzko Erregelamendua onartzen da](#), arautzen da.

<sup>16</sup> 34. artikulua, 2. paragrafoa, b) e) eta f) puntuak.

<sup>17</sup> [34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, Airearen Kalitateari eta Atmosferaren babesari buruzkoa](#) (12. eta 13. artikulua eta 4. eranskina) eta [10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena](#) (19. artikulua: Ingurumenen esku hartzeko erregimenak), I.B ERANSKINA (Ingurumen-baimen bakarra behar duten jarduerak eta instalazioak: atmosfera kutsatu dezaketena) eta I.D ERANSKINA: Jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak eta instalazioak (14. Errauste-laberik gabeko hilerriak eta beilatokiak).

Hileta-garraioa<sup>18</sup> lege ezarritako ehortzetxeek egin beharko dute, eta garraio pribatu osagarritzat hartuko da<sup>19</sup>. Hileta-garraioa indarreko arauak errespetatu beharko dira, eta ibilgailuek agintari eskudunek ezarritako baldintza tekniko eta sanitario guztiak bete beharko dituzte. Halaber, hileta-garraioak egiten dituzten legeko enpresa guztiek mota horretako zerbitzuak garatu ahal izango dituzte Estatuko lurralde osoan, jatorria edo ibilbidea edozein dela ere, ehorzketa egiten den edo gorpua eramaten den lekuraino.

Hileta-zerbitzuetan ematen den garraio-jarduerari dagokionez, garraio arruntak eta bereziak bereizten dira<sup>20</sup>.

Nolanahi ere, sektoreko legeriaren arabera, hileta-zerbitzuak lehia askean ematen dira, eta eragileek merkatuan jardun behar dute lehiaren aurkako jokabiderik izan gabe.

#### 4. LEGEDIAREN EGUNERATZE BEHARRA

Erregulazio ekonomikoaren kalitateak jarduera ekonomikoen funtzionamendu egokia baldintzaten du, eta gizarte osoaren bizi-maila hobetzen laguntzen du, bai eta aberastasuna modu bidezkoagoan banatzen ere.

Hori dela eta, hileta-jarduerari lotutako araudiak eguneratzea eta gizarte- eta sektore aldaketetara egokitzea beharrezko da<sup>21</sup>; era berean, ahalik eta baldintza lehiakorrenak ziurtatu behar ditu.

18 [1211/1990 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Lurreko Garraioak Antolatzeko Legearen Araudia onartzen duena](#) (139. artikulua).

19 Garraio arloan jarduten ez duten enpresek burutukoak, beren jarduera nagusia gauzatzeko bidaiari lekualdaketa osagarri bezala egin behar dutenak.

20 [16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa](#) (66. artikulua).

21 Adibidez, HILETA-ZERBITZUEN ELKARTE NAZIONALAK, PANASEF, oinarritzko hileta-zerbitzu lege bat eskatzen du ([2023 Hileta-sektorearen erradiografia](#)).

Zehazki, 2011ko Hileta-Zerbitzuen Lege Proiektua<sup>22</sup> abiapuntu egokia izango zen, hileta-zerbitzuak emateko esparru orokor bat ezarri nahi baitzuen, sektorean benetako lehia bermatzeko eta kontsumitzaileak askatasunez aukeratzeko, hileta-zerbitzuei eta haien prezioei buruzko informazio hobea bermatuz<sup>23</sup>. Lege-proiektu hau onartzeak berekin ekarriko zukeen oraindik indarrean dagoen araudian dauden oztopo eta baldintza gehienak ezabatzea edo sinplifikatzea.

Nolanahi ere, araudia egokitzeak merkatu desberdinetan sartzeko eta jarduteko oztopoak ezabatzen lagundu behar du, eragileek lehiakortasun eta segurtasun handiagoa izan dezaten eta jarduera hori errazago egin dezaten. Horrek onura handiak ekarriko dizkie herritarrei oro har, hala nola prezio merkeagoak eta zerbitzuen kalitate eta aniztasun handiagoa<sup>24</sup>.

22 Lege proiektu haren iraungitzea Kongresuko Aldundi Iraunkorrek Mahaiak egin zuen 2011ko irailaren 28an. IX. legegintzaldia desagitearen ondorioz, lege proiektu hau bertan behera geratu zen.

23 Horrela ulertu dute lehiaren agintaritzek eta Merkatu Batasuneko Batzordearen Idazkaritzak (SECUM) -zeinak MBBLren ezarpenari buruzko txostenak egiten dituzten zerbitzuak emateko sarrera-eta jarduketa-oztopoak daudela diotenak. SECUM, [28.18 SERVICIOS FUNERARIOS. Instalaciones; 28.11 SERVICIOS FUNERARIOS. Barreras; 28.12 SERVICIOS FUNERARIOS. CNMC, UM/94/15 SERVICIOS FUNERARIOS FUENGIROLA; UM/41/16 PATENTE CONSTRUCCIÓN FUNERARIA. LEHIAREN ETA ERREGULAZIO EKONOMIKOAREN ANDALUZIAR BULEGO, ACREA, 19/2014 INSTALACIONES FUNERARIAS; 11/2014 FUNERARIAS BARRERAS](#)


24 ACREA, [Hileta-zerbitzu sektorean sarrera errazteko eta lehia sustatzeko gomendioak](#).

# V. HILETA-MERKATUAK

## 1. HERIOTZAK

2023 urtean, EAEn 22.311 pertsona hil ziren, % 54 Bizkaian, % 33 Gipuzkoan eta % 13 Araban.

### 1. Grafikoa. Heriotzak EAEn (kopurua)



Iturria: EUSTAT.

2022an, eskualdez eskualde, heriotzen % 41a Bilbo Handian kontzentratu zen, % 16a Donostialdean eta % 10a Arabako Lautadan.

Hiriburuek EAeko heriotzen % 36a (7.984) biltzen dute. Barakaldo, Getxo, Irun eta Portugaletekoak gehitzerakoan, heriotzen % 49a batzen dute.

Heriotzen etorkizun-proiekzioei dagokienez, proiektzio horiek hazten jarraituko dute 2060ko hamarkadaren amaierara arte, biztanleria-piramidearen aurreikusitako bilakaeraren arabera, biztanleriaren pixkanakako zahartzearen ondorioz<sup>25</sup>.

<sup>25</sup> INE: [2022-2072 Biztanleria proiektzioa](#).

## 2. MERKATUAK

Merkatua definitu egingo da, hileta-sektorearen lehia egoerara hurbiltzeko bitarteko gisa<sup>26</sup>.

Erreferentziako merkatuak, non lehiaren dinamika baloratzen den, dimentsio bikoitza izan ohi du<sup>27</sup>:

- produktu-merkatua, hau da, bezeroek eragindako enpresa(ar)en produktuarekin trukatu edo ordezkatu daitezkeela uste duten produktu guztiak, produktuen ezaugarriak, prezioak eta aurreikusitako erabilera oinarri hartuta, lehia-baldintzak eta merkatuko eskaintzaren eta eskariaren egitura kontuan hartuta.
- merkatu geografikoa, eraginpeko enpresek erreferentziako produktuak eskaintzen edo eskatzen dituzten eremu geografikoa barne hartzen duena, non lehia-baldintzak behar bezain homogeneoak direla ikertutako portaeraren ondorioak baloratu ahal izateko, eta beste eremu geografiko batzuetatik bereiz daitekeena, bereziki, lehia-baldintzak nabarmen desberdinak direlako eremu horietan.

Heriotzek hainbat hileta-zerbitzu ematea eskatzen dute<sup>28</sup>, pertsona hiltzen denetik hura ehortzi edo errausten den arteko jarduera guztiak barne hartzen dituztenak.


Tradizioz, sektore honetan hurrengoko produktu merkatuak bereiztu dira: 1) hileta-zerbitzuak, 2) beilatoki-zerbitzuak, 3) errausketa-zerbitzuak eta 4) hilerri-zerbitzuak.

<sup>26</sup> Europako Batzordeak eta lehiaren agintaritzek merkatu-definizio kontzeptua erabiltzen dute, haien lehiaren defentsari buruzko (lehiaren aurkako jokabideak) legediaren ezarpenean eta enpresa arteko kontzentrazio operazioen kontrolean. Merkatua definitzeak –bitarteko analisi tresna gisa– lehiaren balioztatzea egituratzen eta errazten du.

<sup>27</sup> Batzordearen Jakinarazpena, lehiaren arloko Batasunaren araudiaren ondorioetarako erreferentziako merkatuaren definizioari buruzkoa, 2024ko otsailaren 8koa ([C/2024/1645](#)).

<sup>28</sup> Sinonimo gisa “hileta-zerbitzuak” eta “hilotz-zerbitzuak” erabili ohi dira, baina azken hori zabalagoa izan da, zerbitzu guztiak hartzen baitzituen, hilerria eta erraustegia barne.

## 2. Grafikoa. Hileta-merkatuak: txikizkakoak eta handizkakoak



Iturria: Egileak prestatua.

Zerbitzu horiek osagarritzat har daitezke, eta, hain zuzen ere, eskatzaileek multzo gisa ikusten dituzte, eta ehorztetxe bat da –hileta-zerbitzuak ematen, azpikontratitzen eta/edo koordinatzen dituena– erreferente bakarra, operadore desberdinek parte hartzen badute ere. “Paketizazio” horren ondorioz, zerbitzu horiek hileta-zerbitzu integralen txikizkako merkatuan ematen dira, ehorzketa baten esparruan eskatzen diren prestazio guztiak biltzen dituen merkatuan.

Bestalde, enpresa guztiek zerbitzu integralak emateko behar diren instalazio eta zerbitzuak ez dituzte eta handizkako (i) garraio-, (ii) beilatoki-, (iii) hilerri eta (iv) errausketa-merkatuetara jotzen dute<sup>29</sup>.

Besteren baliabideak erabiltzea justifikatuta dago, ehorztetxe guztiek zerbitzu integral bat emateko beharrezkoak diren baliabide edo instalazioak ez baitituzte eta, izatekotan, gerta daiteke hauek zerbitzu horretarako aukeratutako herrian ez egotea edo bezeroak instalazio hori ez aukeratzea<sup>30</sup>.

Gainera, hileta-zerbitzuekin zerikusia duten beste produktu eta zerbitzuak daude, hala nola produktu osagarriak (lore-apaingarriak, hilarriak eta harrizko beste produktuak, hilobiak apaintzeko beste

produktuak, etab.), heriotza-aseguruak eta osasun-eta geriatría-zerbitzuak.

Hainbestekoa da zerbitzuen interrelazioa, non merkatu batean gauzatutako jokabideak besteen lehia dinamika guztiz alda dezaketen, eta, merkatuak lotuta daudela kontsidera daitekeen<sup>31</sup>. Horri dagokiolarik, 2024ko maiatzaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia [ECLI:ES:TS:2024:2239] nabarmentzea komeni da, non hurrengoko irizpena eman zen:

«[...] produktu batentzako ia monopolio egoeran dagoen eta egoera hori lotutako merkatua mugatzeko eta baldintzatzeko erabiltzen duten enpresa-talde baten itunpeko jardunbideak, bere ezaugarri propioak direla eta, lehiaren aurkako eragin zuzena dauka, lehiakideak ezinbesteko desabantaila egoera batean kokatzen dituelako eta, hortaz, nagusitasun gehiegikeria bezala kontsideratu behar dira».

Jarraian aztertuko dira hileta-zerbitzu integralen txikizkako merkatua eta beilatoki, errausketa eta hilerri handizkako merkatuak.

<sup>29</sup> MLBN, [C/1044/19 EXPERIENTEAREN TXOSTEN ETA EBAZPEN PROPOSAMENA](#).

<sup>30</sup> LEA/AVC: [341-ZEH-2020 GIPUZKOAKO BEILATOKIAK](#); MLBN [C/1044/19](#).

<sup>31</sup> 1996ko azaroaren 14ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EJ) Epaia, C-333/94 P Gaia, *Tetra Pak* [ECLI:EU:C:1996:436].



## VI. HILETA-ZERBITZU INTEGRALAK

### 1. TXIKIZKAKO MERKATUA

Bere produktu dimentsioan, ehorzketa arloan beharrezkoak diren zerbitzu multzoa elkartzen du: hileta zerbitzuak —garraioa edo eramatea, bestelakoak—, beilatokikoak, hilerrikoak eta errausketakoak.

Emandako bestelako zerbitzuen artean hurrengoak daude: hilotzaren egokitzapen sanitarioa eta hila janztea, tanatoestetika eta tanatopraxia barne; hilkutxen eta bestelako hileta-ontzien hornikuntza; beilatokiko ekitaldi soziala antolatzea, ia kasu guztietan beilatokiaren instalazioetara bideratu dena; ehorzketa edo errausketa unea iritsi bitartean gelak gordailu bezala uztea; loreen eta koroen hornikuntza; heriotza erregistratzeko eta ehorzketa baimentzeko diligentzia tramiteak, etab.

Dimentsio geografikoari dagokionez, nabarmendu behar da zerbitzuaren ezaugarriek (berehalakotasuna, egoera emozionala, ohitura, senide eta adiskideen lekualdatzea...) oso zaila egiten dutela hildakoaren bizilekutik edo ohiko erreferentzia lekutik urrun dauden ehorztetxeak aukeratzea. Horrexegatik, ger-tutasuna faktore erabakigarria da lehiatzeko eta bezeroak erakartzeko orduan.

Ondorioz, hileta-zerbitzu integralen merkatuko le-hiaren aldagaien —enpresa lehiakideak eta haien portaera eta posizioa merkatuan— analisia tokiko ingurunetan egiten da. Kasuaren arabera, tokiko eremua zein udalerrri baten, eskualde baten edo hainbat eskualdetan eragin eremua kontsidera daitezke.

Aurretiko azterlanean ([Hileta-sektorea 2009](#)) eskualde eremua aukeratu zen, Araban izan ezik, Vitoria-Gasteiz hiriburuaren inguruan eraturako eskualdeaz gaindiko merkatu bat hauteman baitzen.

Mugaketa geografiko hori berrikusita, eskualde mugaketa baliozkoa dela egiaztatu da. Izatez, 2019-2023 denboraldian<sup>32</sup> emandako hileta-zerbitzuen arabera berrikusita, heriotzen % 87an hileta-zerbitzuen kontratazioa hildakoa bizi zen eskualde berdinean dauden ehorztetxen esku uzten dela ikus daiteke.

Horren arabera, eskualdeak hartzen dira erreferentzia orokor gisa enpresen lehia-posizioa ebaluatzeko, merkatu-kuoten azterketaren bidez, eta dagozkien kasuetan azpieskualdeetan sakontzen da. Aukera horrek, gainera, 2009. urtearekiko analisi diferentziala egiteko aukera ematen du.

Ondorioz, eskualdeko espazio-inguruneen lehia-posizioa aztertzen da: Arabako Kantaurialdea, Arabako Errioxa, Arratia-Nerbioi, Bilbo Handia, Durangaldea, Enkarterria, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa, Plentzia-Mungia, Bidasoa Beherea, Donostialdea, Debarrena, Debagoiena, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta<sup>33</sup>.

Haatik, salbuespen bat dago «eskualdea» arau orokor honetan: Araban eskualdez gaindiko merkatu geografiko bat sortzen da Vitoria-Gasteiz hiriburuaren inguruan edo hurrengo eskualdeek osatzen duten eremuan: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Ibarak eta Gorbeialdea. Merkatu hau «Araba Erdialdea» bezala izendatu da.


Nolanahi ere, eskualdeetan, berez merkatu izan daitezkeen azpieskualde-inguruneak eta baita udal inguruneak ere ikusten dira, eta alderdi hori kontuan hartu behar da azterketa zehatzagoetan. Azterlan honetan, hileta-zerbitzuak Bilbo Handian (% 41, 2023an) eta Donostialdean (% 16) pilatu direnez, merkatu-kuotak ere aztertu dira azpieskualdeak kontuan hartuta.

32 Iturria: Egileak prestatua, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hornitutako datuetan oinarrituta.

33 [EUSTATen](#), Euskal Estatistika Erakundearen, [sailkapenaren](#) arabera.



## 1. Mapa. EAeko Merkatuak



## 2. HAUTAKETA IRIZPIDEAK, PREZIOAK ETA IKUSPEGIAK

Hileta-zerbitzuaren eskaria hungigarritasun bereziko uneetan gertatzen da, eta zerbitzuaren irudi sozialak ere baldintzatzen du, tokiko ohiturak garrantzi berezia hartzen baitu. Hori dela eta, instalazioen kokalekua, ohitura, erreferentziak, irudi soziala eta abarrek bezalako zerbitzuaren elementuek ikaragarriko garrantzia dute azken erabiltzailearentzat.

Hau da, eskatzaileen hautaketa iraganeko erreferentziak edo hildakoaren erreferentziako herrian edo haren inguruan kokatzen diren ehorztetxetara jotzeak gidatzen dute, prezioa bigarren mailara pasatuz.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak (OCU) 2021eko hileta-zerbitzu baten batez besteko kostua 3.739 €koa zela dio (3.617 € errausketa kasuetan)<sup>34</sup>. Zenbateko honek hamar eragile artekoen prezioak barne hartzen ditu<sup>35</sup>: ehorztetxe, hilerri/errausketa-labe, marmolariak, loradendak, prentsa, etab.

<sup>34</sup> KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ERAKUNDEA (OCU). [Compra Maestra 474 zenbakia, 2021ko azaroa. «A cruzar la puerta».](#)

<sup>35</sup> PANASEF (Hileta-zerbitzuen Elkarte Nazionala). [«2023 Hileta-sektorearen erradiografia».](#)

## 1. Taula. Ehorzketa prezioak. 2021

**EHORZKETA ETA LURPERATZEA 2021.  
BATEZBESTEKO KOSTUA**

<b>AZALPENAK</b>	<b>€</b>	<b>%</b>
Hilkutxak	1198	%32
Hilerria	646	%17
Beilatokia	546	%15
Eskelak	319	%9
Langileak eta zerbitzuak	291	%8
Hileta autoa	211	%6
Izapidea eta kudeaketak	205	%5
Loreak	186	%5
Bestelakoak	137	%4
<b>TOTALA</b>	<b>3739</b>	<b>%100</b>

Iturria: Egileak prestatua. OCU.

Prestazio-aniztasun horretan, hileta-zerbitzuak nabarmentzen dira, eta gainerakoak prestazio horri lotutako produktuak dira. Kontzeptu nagusiak hauek dira: hilkutxa, beilatokia, ehorzketa/errausketa, langileak eta hileta-autoa, ia % 80a suposatzen dutenek.

Hilkutxa da hileta-zerbitzuen kontzeptu garestiena: aparteko luxurik gabeko modelo arrunt baten prezioa 600 € eta 1.300 € artean dago eta batez bestekoa 1.200 €koa da<sup>36</sup>.

Espanian, hileta-zerbitzuei % 21eko Balio Erantsiaren gainerako Zergaren (BEZ) karga ezarri zaie, Europar Batasuneko zerga altuenetarikoa da, Hungaria (% 27a) eta Grezia (% 24a) ondoren. Danimarka, Finlandia, Irlanda, Italia, Herbehere, Portugal eta Suedian, aldiz, ez zaizkie BEZa karga ezartzen. Azkeneko herrialde hauetan, ehorzketak eta errausketak familien oinarritzko zerbitzutzat hartzen dira eta ez zaizkie kontsumo zergen kargarik ezartzen<sup>37</sup>.

**EHORZKETA ETA ERRAUSKETA 2021.  
BATEZBESTEKO KOSTUA**

<b>AZALPENAK</b>	<b>€</b>	<b>%</b>
Hilkutxak	1198	%33
Hilerria	524	%14
Beilatokia	546	%15
Eskelak	319	%9
Langileak eta zerbitzuak	291	%8
Hileta autoa	211	%6
Izapidea eta kudeaketak	205	%6
Loreak	186	%5
Bestelakoak	137	%4
<b>TOTALA</b>	<b>3617</b>	<b>%100</b>

Ehorztetxeek banakatutako prezioen lista argi eta garbi erakutsi behar dute haien instalazioetan (bulegoak, ehorztetxeak, errausketa-labeak...)<sup>38</sup>.

Hileta-zerbitzuak garestiak direla uste izateak, senideen egoera emozionalarekin batera, eragina du aurreikuspen-zerbitzuen kontratazioan, bai heriotza-aseguruen edo hileta-mutualitateetako ekarpenen bidez, bai hileta-planen bidez—beharra sortu aurreko kontratuak edo hileta-aurreikuspen-planak ere esaten zaie—. Kasu horietan, aseguruak ez bezala, prezio itxia da, eta eskura edo gehienez ere 10 urtez ordain daiteke<sup>39</sup>.

Hileta-zerbitzu ideala nolakoa izan beharko litzatekeen kontura eskariaren lehentasunek bilakaera bat izan dutela ikusten da: gero eta gehiago baloratzen dira esperientziak, eta aldiz, gero eta gutxiago, tradizionalki sektorea mugitu duten zerbitzu eta produktuak, hilkutxen kalitatea adibidez. Hileta-zerbitzuari "hileta-ponpak" esaten bazitzaion, familiek zerbitzua nabarmendu nahi zutelako, orain zerbitzu intimoagoak, naturalagoak nahi dituzte, itxura egite-

36 KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILITZAILEEN ERAKUNDEA (OCU). [Hileta-zerbitzuen kostua](#) (2023/10/31).

37 FUNOS [Hileta-sektorearen 2023ko barometroa](#), 29-31 orrialdeak.

38 [4/2023 Legea, apirilaren 27koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena](#) (47. artikulua).

39 FUNOS [Hileta-sektorearen 2023ko barometroa](#), 40-44 orrialdeak.

ko gogorik gabeak eta beilatoki laburragoak dituztenak. Era berean, zeremonia bakar eta gogoangarriak, zerbitzu digitalak eta oroimenerako produktu eta zerbitzuak eskatzen dira<sup>40</sup>.

Berriz, beste aspektu soziologikoak daude: ingurumen aspektuaren garrantzi handiagoa – hilkutxa eta urnentzako material ekologikoen eskaintza beharra–, errausketa ehorzketa baino nahiago izatea, garraioaren efektuak minimizatzea, *low cost* soluzioekiko interesa, usadio sozialen aldaketa immigrazioa eta sekularizazioa direla eta –% 15a zeremonia laikoak dira– eta zerbitzu digitalen eskaria –hatzmarka digitalen kudeaketa eta adimen artifizialaren erabilera–<sup>41</sup>.

### 3. ZUZENEKO ETA BITARTERIKO ESKARIA

Hileta-zerbitzuak –derrigorrezkoak eta premia premia-zerbitzuak direnak– zuzenean edo aseguru-etxeen bidez eskatzen dira, heriotza-asegurua izanez gero. Hileta-zerbitzuak, halaber, hileta-mutualitate, kofradia edo antzeko baten babesa izan dezake, horien kide bada.

Eskaria partikular batek egiten badu, bereziko hunkiberatasun pertsonal eta sozialetan gertatzen da, eta bere negoziazio gaitasuna oso txikia da, zerbitzu hauetan biltzen diren ezaugarri legal, osasun eta emozionalak direla eta: eskaria beharrezkoa eta derrigorrezkoa da, prezioari dagokionez ia zurruna, noizbehinkakoa, berehala ase beharrezkoa –hilotzaren azkeneko garraioa hil eta ondorengo 24-48 orduen artean egin behar da<sup>42</sup>– eta oinarrizko baldintzak

ezagutzen ez dituenak. Informazio-asimetriak prezioa, zerbitzuen ezaugarriak eta ezinbesteko zerbitzuak barne barne hartzen ditu<sup>43</sup>.

Inguruabar horiek eskaintzailearen gaineskarria eragin dezakete, gehiegizko prestazioak kontrata baitaitezke, senideek onartu egiten dituztenak, –egoera emozionala eta soziala kontuan hartuta– hildako pertsona behar bezala ohoratzeko.

Halaber, emozio- eta psikologia-egoeren ondorioz, bai eta kultura- eta gizarte-ohituren ondorioz ere, ez dira beti nagusitzen irizpide ekonomikoak eta kalitatezkoak.

Gainera, heriotzarekin zerikusia duten kontuak tabu izan ohi dira eta, hortaz, hura ikusezin bilakatzera bultzatzen dute, heriotzari lotuta dagoen guztia ezezagutzaz eta «jakin nahi ez izanaz» inguratuz.

Baldintza horien guztien ondorioz, hileta-zerbitzuen eskariaren ezaugarria izan da “merkatu-zaugarritasun espezifiko” edo merkatu jakin batzuen tes- tuinguru espezifikoaren ondoriozkoa, eta merkatu horien barruan kontsumitzaile multzo zabal bati eragin diezaiokena<sup>44 45</sup>.

ostean, ehorztekoko lizentzia lortzen da ([Erregistro Zibilean Erregelamendua, 1958ko azaroaren 14an Dekretu bidez onartua](#)).

40 FUNOS [Hileta-sektorearen 2023ko barometroa](#), 44 orrialdea.

41 National Geographic, Allie Yang, [‘Ecofriendly’ hiletak: heriotzara arte ingurumena nola errespetatu](#), 2023ko otsailaren 23a. Adibidez, arlo honetan jarduten duten startup berritzaileen zerrenda bat EU STARTUPS webgunean kontsulta daiteke: [«10 European deathtech startups innovating in the endoflife space»](#)

42 Heriotza alde aurretik hura gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean erregistratu behar da, senideen adierazpenaren ondoren eta medikuak ziurtagiria emanda. Inskripzioa egin

43 Erabiltzaileek ez dituzte bereizten eskakizun osasunengatik beharrezkoak diren zerbitzuak eta osagarriak eta boluntarioak direnak. Hileta-enpresek honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte nahitaez: heriotza-ziurtagiri medikoa lortzea, heriotza Erregistro Zibilean inskribatzea, ehorzketa egiteko lizentzia lortzea, hilkutxa hornitzea, hilotza prestatzea eta hilerria edo errauskailura eramatea eta ehorzketa edo errausketa. Nahitaezko jarduera guztietatik, erabiltzaileek honako hauek baino ezin dituzte egin: heriotza-ziurtagiri medikoa lortzea, Erregistro Zibilean inskribatzea eta ehorzketa egiteko lizentzia lortzea.

44 COMPETITION AND MARKETS AUTHORITY (CMA), [Consumer vulnerability: challenges and potential solutions](#).

45 European Commission, Consumers, Health, Agriculture and Food Executive Agency, [«Consumer vulnerability across key markets in the European Union: executive summary»](#), Publications Office, 2017.

Horrela defini daiteke pertsona zaugarria: «Bere ezaugarri soziodemografiko, portaera ezaugarri, egoera pertsonal edo merkatu ingurumena direla eta, hurrengoko baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileek:

- *Merkatuan ondorio negatiboak jasateko arriskuan daudenak;*
- *Beren ongizatea maximizatzeko gaitasun mugatua dutenak;*
- *Informazioa eskuratzeko edo bereganatzeko zailtasunak dutenak;*

Heriotza-poliza baten bitartez babestutako zerbitzua bada, aseguru-etxeak laguntza ekonomikoa eta kudeaketakoa ematen ditu heriotzaren aurrean, tramite guztien ardura hartuz. Horrek murriztuegintza familiarren eta hileta-enpresaren arteko elkarrekintza, familiarentzat hileta-zerbitzua inguratzen duten sentikortasun eta ezezagutza bereziko baldintzak mantentzen badira ere. Dena den, aseguru-etxeek zerbitzu-emailea aukeratzeko askatasuna bermatu behar dute<sup>46</sup>.

EAEn, heriotza-aseguruaren batez besteko ezarpena (aseguratuak/biztanleria) 2022an % 42 ingurukoa izan da<sup>47</sup>. Datu horien arabera, aseguratzaileen bitarteko hileta-zerbitzuak gutzitzkoaren erdia dira<sup>48</sup>. Izan ere, heriotza-aseguruagatiko ehorzketen estaldura koefizienteak ezarpen-ratio orokorrak baino handiagoak dira, aseguratzaile-maila gero eta handiagoa baita adinarekin<sup>49</sup>.

Kontratutako zerbitzuek prezio itxia edo aseguru-etxeak ehorztetxearekin aurretik negoziatutako baldintza ekonomikoak izan ohi dituzte. Hori dela eta, prezio finalak partikularrek ordaindutako prezioak baino baxuagoak dira –zerbitzu «partikularren» prezioak % 100 baino garestiago izan daiteke aseguru-etxeek ordaindutakoarekin konparatuz<sup>50</sup>–, bideratzen duen eskariaren gainean oinarritutako negoziatzeko gaitasunaren isla izanik. Egindako presioa hain izan da handia, ezen ehorztetxe batzuek beren enpresa-estrategian erabaki baitute aseguratutako zerbitzuei uko egitea eta partikularrengan zentratzea.

- *Produktu egokiak erosteko, aukeratzeko edo haiei heltzeko gaitasun gutxiago daukatenak; edo*
- *Merkataritza praktika jakinetara sentikor direnak».*

46 [50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuari buruzkoa](#), 106. quater artikulua.

47 2012-2019 denboraldian kapilaritate ratioa %42,49 ingurukoa zen. Ikus UNESPA: [Heriotza-aseguruak hartutako heriotzak 2020an](#).

48 Heriotza aseguruaren % 50 inguruko tasetara iristen da, derrigorrezko aseguruaren ez baldin bada ere, eta Espainian emandako hileta zerbitzuen % 60az arduratzen da. ASEGURU ETA PENSIO FUNTSEN ZUZENDARITZA NAGUSIA. [Aseguruak eta pensio funtsak. 2022ko Txostena](#).

49 UNESPA, [Heriotza-aseguruak hartutako heriotzak 2020an](#).

50 LEA/AVC, [2/2013 Espedienteak](#). Bidasoak Beherako ehorztetxeak.

Halaber, aseguru-etxeak ehorztetxeen parte izan daitezke, integrazio bertikala edo lehentasunezko erlazioak sektorearen ezaugarri bat izanik. Honek hileta-zerbitzuen merkatuaren lehiakortasun egitura baldintza dezake, aseguru-etxeek hileta-zerbitzuak haien hileta-enpresa kideei bidera ditzaketelako.

Bi merkatuen arteko harremana –heriotza-aseguruak eta hileta-zerbitzu integralak– hain da handia, ezen hileta-zerbitzuen erabiltzaileek ehorzketaren aseguruaren izatea ehorztetxearekin identifikatzen baitute eta, beraz, hileta-zerbitzuen merkatuko lehia aseguru-etxeetara hedatzen da neurri batean. Ezaugarri hau V.6 atalean xehetasun gehiago aztertzen da.

Bestalde, hileta-mutualitateen<sup>51</sup> ehorzketak eragindako gastuak hartzea dute helburu, bazkide mutualistek elkarri egindako ekarpenen bidez. Irabazi-asporik gabeko elkarri laguntzeko erakunde horien helburua da familia-eremua gainditzeko erantzutea, eta hainbat auzotan funtzionatzen dute duela mende batzuetatik hona izaera hauen bidez: montepiok, ermandadeak, elkarri laguntzeko elkarteak, kofradiak eta antzeko beste batzuk.

Bazkide bat hiltzekotan, hileta zerbitzuaren eskariak hurrengo ereduari erantzun dakizkieke, mutualitatearen arabera:

51 EAEn Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeekin (BGAE) bat datoz, «Ehorzketatik eratorritako gastu eta zerbitzuak» bezalako «bestelako gertakizunak» barne sartzen dituztenak, «bereizi gabeko araubide bereziko erakundetzat» hartzen direnak –hau da, «zeinaren kideak laboralak ez diren loturak dituzten eta gertakizun ez pertsonalak barne hartzen dituzte operazioak burutzen dituzte»–. Gizarte-aurreikuspeneko mutualismoa horien osagai berezile eta funtsezkoa da, eta bere helburu sozialean eta estatutuetan ez dago ematen dituzten prestazioak bermatzen dituen inolako elementu aseguratzaileerik. [5/2012 LEGEA, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena, eta AGINDUA, 2019ko abenduaren 26koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereziko gabeak arautzeko -borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde berrak 2019ko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan daude araututa erakunde horiek.](#)



- zuzena, non mutualistek heriotza gertatzerakoan kopuru finko bat jasotzen duten eta nahi duten ehorztetxearengana jotzen duten.
- artekarikoa, non mutualistek mutualitateek aurretik zehaztutako prezio eta kalitatea ziurtatzearen akordioak sortu dituzten ehorztetxearengana jotzen duten.
- mistoa, aurreko biak elkartzen dituenak: alde batetik, mutualistek lehentasunezko baldintzetan zenbait oinarritzko zerbitzu dituzte eta, bestetik, aurrez ezarritako kopuru bat jasotzen dute, aukerako zerbitzuetarako, zeinei oinarritzko zerbitzuak egingo dituen ehorztetxeak baldintza bereziak aplika diezazkieke.

EAEn hogeitahamar bat mutualitate daude<sup>52</sup> –26 Bizkaian errotuta eta 2 Gipuzkoan– horien ezarpena udal-inguruneekin lotzen da (herriak, auzoak...), eta horietako batzuek atxikimendu nabarmena dute: Basauriko SAN PEDRO APÓSTOL, Kabiezesko SAN PEDRO, Arrasateko SAN FELIPE...

Heriotza-asegurua eta hileta-mutualitateen ezarpenaren arabera, hainbat lehiakor-eremu eratzen dira, eta bertan dauden ehorztetxeek beren enpresa-estrategia baldintza dezakete; adibidez, eskaera partikular baxu batek aseguru-etxeekin eta mutualitateekin akordioak lortzera bultzatuko ditu, edo horiei lotutako beste ehorztetxe aritzea eremu berean lehiatzeko aukerei eragin diezazkieke.

## 4. HILETA-ZERBITZUEN ESKAINTZA

### 4.1. Ehorztetxeak

Lege barruan sortutako eta erregistratutako hileta-enpresek hileta-zerbitzu integralak eskaintzen dituzte: hilotz manipulazio eta egokitzen zerbitzuak, hilotz-garraioa, nola helburu horietarako ondasun eta zerbitzu osagarrien hornikuntza<sup>53</sup>.

52 [Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen \(BGAE\) erregistroa.](#)

53 [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkide-](#)

Bestalde, UNE-EN 15017:2020 Arauak «Hileta-zerbitzuak. Baldintzak»<sup>54</sup> –borondatezkoa eta hileta sektoreari lotutako profesional, establezimendu eta hilerri eta errausketa labeetako zerbitzuei aplikagarria, baita edozein motatako hileta-zerbitzuak ematen dituen pertsoneri ere– hileta-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen ditu hurrengo arloetan: prestakuntza plana, aholkularitza zerbitzuak, hileta instalazioak, hildakoen edo gorpuzkien garraioa, zenduaren zainketa, online zerbitzuak, kalitate kudeaketa eta araudi etikoak.

EAEn, hileta-enpresen lurralde mapa lurralde ezberdinen ezaugarri demografiko eta orografikoez baldintzatuta dago.

Bizkaia eta Gipuzkoa geografia menditsua, ibar es-tuekin, eta biztanle dentsitate altua dituzte ezaugarri, nahiz eta lurralde oreka jakin batetik salbuetsita ez badaude ere. Araban, ordea, hura egituratzen duen lautada zentralarekin, biztanleria hiriburuaren inguruan –Vitoria-Gasteiz– biltzen da (% 75a)<sup>55</sup>. Lurralde formaren ezberdintasunak merkatu banaketa ezberdinak ditu ondorio: Bizkaia eta Gipuzkoa hainbat eskualde ehorztetxe dituzte, tradizional eta familiarrekoak baita enpresa-taldeak ere, Araban ez bezala, non ehorztetxeak sei udalerritan biltzen diren.

[goko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#) (3. artikulua). Halaber, 30-34 artikuluek hileta-enpresek bete behar dituzten baldintzak jasotzen dituzte.

54 [UNE Espainiar normalizazioa.](#)

Espainiako Normalizazio Erakundea, UNE, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, Espainiako normalizazio erakunde bezala aintzatetsi dena. UNE arauak borondatezkoak dira, baina xedapenetan aipatzen direnez, araututako agintaritzek erabaki dezakete haietan ezarritakoa, guztia edo zatiak, nahitaez betetzera derrigortzea.

55 Biztanle dentsitatea (2023/01/01) (biztanle/km<sup>2</sup>): Araba: 109,4, Bizkaia: 516,5, Gipuzkoa: 363,9. Eskualdeei dagokienez, hurrengoak bereizten dira: Bilbo Handia: 2.280, Donostialdea, 1.084,7, Bidasoa Behera, 1.077,9, eta gero, Arabako Lautada, 333,9. Bilbok Bizkaiko biztanleriaren % 23a hartzen du eta Donostian Gipuzkoako biztanleriaren % 25a. Iturria: [EUSTAT](#)

## 2. Taula. Hileta-enpresak. EAE 2023

**HILETA-ENPRESAK. EAE 2023**

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
(O) ALBIA (VITORIA-GASTEIZ)	(O) ALBIA (AMOREBIETA-ETXANO, BILBO/BOLUETA, ERMUA, IURRETA, SANTURTZI)	(O) ALBIA (BERGARA, DONOSTIA-SS, EIBAR, MUTRIKU, ZUMAIA)
(O) LARRAZ (AMURRIO, LAUDIO)	(E) ARRATE (BERRIZ, DURANGO)	(E) ARETXABAETA TANATORIOA (ARETXABAETA)
(O) MÉMORA (LAGUARDIA, MURGIA, OION, VITORIA-GASTEIZ)	(E) BASAGUREN (DURANGO, ELORRIO)	(E) ARRASATE BERRIA (ARRASATE)
(E) POMPAS FUNEBRES LAUZURICA (VITORIA-GASTEIZ)	(O) BIZKAIA BARAKALDO, BILBO, GETXO, SANTURTZI	(E) CARMONA (AZPEITIA, AZKOITIA)
	(E) CANTABRICA (BILBO, BARAKALDO)	(E) EGUZKILORE (OÑATI)
	(E) ENALTA (BILBO/OLABEAGA, GETXO/ALGORTA, GETXO/AREETA, MUNGIA)	(E) ETXEBERRIA (ELGOIBAR)
	(O) GALARZA (GALDAKAO, DIMA)	(E) GONZÁLEZ (USURBIL)
	(E) FUNERARIA DEL NORTE (BASAURI)	(E) HONDARRIBIA (HONDARRIBIA)
	(E) GRUPO INTERFUNERARIAS (BARAKALDO)	(E) IRUN (IRUN)
	(E) IZARO (BERMEO, GERNIKA)	(O) MÉMORA (DONOSTIA/ZORROAGA, DONOSTIA/BENTA BERRI, ERRETERIA, ZARAUTZ)
	(E) LARRAZ (ARRIGORRIAGA), (O) AMOREBIETA	(O) MÉMORA FUNEUSKADI (EIBAR/MUGICA, ELGOIBAR/MUGICA)
	(E) LEA-ARTIBAI (BERRIATUA, [O] ONDARROA	(O) MÉMORA TABISA (IRUN, HONDARRIBIA)
	(O) MÉMORA FUNEUSKADI (BILBO/RECALDE ZU., BILBO/ ZUMAL; BILBAO/SANTUTXU; BALMASEDA/ARANGUREN, BARAKALDO, KARRANTZA, ERMUA/MUGICA, GALDAKAO; LEIOA, MUSKIZ/ARANGUREN, PORTUGALETE, SANTURTZI, SESTAO, ZALLA/ARANGUREN)	(O) MÉMORA VASCONGADA (DONOSTIA/ERREKALDE, ANDOAIN, DONOSTIA/MORLANS, HERNANI, OLABERRIA, OIARTZUN, PASAIA, TOLOSA, BILLABONA)
	(O) SERVISA (BILBO, ERANDIO)	(O) MÉMORA ZENTOLEN BERRI (ERRETERIA)
	(E) TANADEUSTO (BILBO)	(E) MOYUA (OÑATI)
	(E) UMARAN (SOPUERTA)	(E) OJANGUREN (ARRASATE)
	(E) URIBEFUN (GERNIKA-LUMO, ISPASTER, LEKEITIO)	(E) ORBEGOZO (ANDOAIN, HERNANI)
	(E) ZULUETA (BERMEO, MUNGIA)	(E) OROILORE (BERGARA)
		(E) OYARBIDE (BEASAIN, LAZKAO, ORDIZIA, TOLOSA)
		(E) SANTA ISABEL (ZUMARRAGA, LEGAZPI, URRETXU)

\* Ordezkaritza bat baino gehiago izatekotan, lehenik Nagusia adierazten da.

\*\* Ez dira agertzen ehorztetxe-erregistroan egon arren 2023n zerbitzurik eman ez dituzten jasotakoak (Landarri, Iparragirre).

(O) Ordezkaritza; (E) Ehorztetxea.

Iturria: Egileak prestatua. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.



EAEn jarduten duten hileta-enpresek haien jarduera lurralde historiko bakar batean aritzea ohi dute, hauek izan ezik: ALBIA GESTIÓN DE SERVICIOS, S.L.U. (ALBIA) eta MÉMORA taldea –hiru lurraldeetan aurkitzen direnak– eta LARRAZ, S.L. (LARRAZ) –bi lurraldeetan dagoena–.

Gainera, neurri txikiagoan eta EAerekin mugakideak direnez, hurrengo ehorztetxeek ere jardun dute (2023): MERINO CANTABRIA/ FUNEUSKADI, IZARRA NABARRA, MALDAERREKA, FUNERARIA SAN JOSE MIRANDA DE EBRO eta SERVICIOS FUNERARIOS DE HARO.

2009 urtera atzera begira, hurrengo tokiko ehorztetxeak desagertu dira: VDA. de JOSE LUIS DE IBARRA (Plentzia), SAN MIGUEL (Orduña), EZPONDA, FURESA (MÉMORA taldeko TADOSAK xurgatua)<sup>56</sup>, IPARRAGUIRRE (Deba) eta URIBESALGO (Urretxu). Merkatura sartu diren eragileen artean, ordea, hurrengoak daude: INTERFUNERARIAS (Barakaldo) eta TANADEUSTO (Bilbo).

#### 4.2. Kontzentrazioa: enpresa tradizionalak, hileta-taldeak eta ehorztetxe handiak

Sektorean enpresa tradizionalak edo familiarteko enpresak –udalerrri txiki eta ertainekoak, hiriburu-eraginaren at daudenak– eta estatu mailako hileta-taldeak eta ehorztetxe handiak –hirigune handietan eta haien alderrietan gehienbat finkatzen direnak– batera aritzen dira.

Sektorearen egitura aldaketak –horizontalki eta bertikalki kontzentratzeko joerarekin<sup>57</sup>– enpresa

56 [2023ko uztailaren 27ko Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofiziala \(142 zenbakia\)](#) (6138 orrialdea). [2023ko urriaren 26ko Merkataritza Erregistroko Aldizkari Ofiziala, 205 zenbakia](#) (48613 orrialdea).

57 Honen adibide MLBNk baimendutako kontzentrazioak dira: C/1412/23 MÉMORA/FL; C/1434/24 MÉMORA/TANATORIO DE PALENCIA; C/1455/24 MÉMORA/ TANATORIO LA SOLEDAD; C/1359/22 GRUPO CO/MÉMORA; C/1151/20 MEMORA/REKALDE/IRACHE; C/1275/22 FBLAUX/FUNCANTABRIA; C/1157/20 CATALANA OCCIDENTE/ Ehorztetxea ARANGUREN. LEA/AVC, EAEko ENPRESEN PARTAIDETZA DUTEN KONTEN-

handiagoak eta jokaera eremu zabalagokoak sortu ditu eta, ondorioz, hileta-sektorearen konfigurazio atomizatua tradizionala beherako joera dauka.

Sektoreko enpresa hazkundeak bi bide jarraitu ditu: organikoa –ordezkaritza/instalazio gehiago sortu dituzten ehorztetxeak– eta erosketa edo *buy and build* estrategia bidezkoa, bide organikoa edo ehorztetxe arteko lehentasunezko lankidetzak hitzarmenak baino azkarrago haztea ahalbidetzen duenak.

EAEko tokiko enpresek hazkunde organikoa hautatu dute batez ere, baina aritu zirenak ere erantsi dituzte (ARRASATE BERRIA [ARETXABALETA, EGUZKILORE], ARRATE, BASAGUREN, GALARZA, URIBEFUN [URIBE eta LEKEITARRA], etab.), enpresa eta ordezkari berriak sortuz. Horrela, oraindik familiarteko ehorztetxeek (tradizionalak) oso garrantzitsuak dira hiriburuetatik urrun dauden eta biztanle gutxi duten eskualdetan, aipatutako merkatuetan beroren presentzia indartzea ahalbidetzen duten inbertsio handiak egin baitituzte.

ALBIAk, aldiz, eredu mistoa jarraitu du, Gipuzkoan instalazio berrien eskutik, eta Bizkaian (Nuestra Señora de Begoña) eta Araban (Vitoria-Gasteiz Ehorztetxea) erosketen bultzadarekin. Horrela ere egin du ENALTAK (Iehen FUNETXEA/FUNESPAÑA), Bilbon ezarri dena eta Getxon SARRIA erosi duena.

Azkenik, MÉMORA taldeak jadanik ezarritako ehorztetxeen (REKALDE taldea<sup>58</sup>) erosketaren alde egin zuen eta, OCCIDENTek<sup>59</sup> hura erosi zuenetik FUNEUSKADI<sup>60</sup> —bere garaian ere ehorztetxe

TRAZIOEI BURUZKO TXOSTENA (2024), (2023), (2022), (2021).

58 FURE, S.A.U.; SERVICIOS FUNERARIOS ZARAUZ, S.A.; TANATORIO DEL BIDASOA, S.A.U.; TANATORIO DONOSTIALDEADONOSTIALDEKO BEILATOKI, S.A.U (TADOSA).

59 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, Grupo Catalana Occidente multzoko enpresak (Seguros Catalana Occidente, Plus Ultra Seguros eta Seguros Bilbao) OCCIDENT markapean bildu dira. Horrexegatik, egun horretatik aurrera jasotzen dituzun zure polizei (zeinen kontratuko baldintzak berdin eta indarrean mantentzen dira) buruzko dokumentazio eta mezu guztiak OCCIDENT GCO, S.A.U. de Seguros y Reasegurosek igorriko ditu.

60 Ehorztetxea BILBAINA Y LA AUXILIADORA, ARANGUREN, MÚGICA, CARRANZA.

erosketaren alde agertu zena— ere erantsi du bere taldera<sup>61</sup>.

Sektorean kontzentrazio prozesu iraunkorra egiaztatu da, eskualde gehiagotan eragin handiagoa duten enpresa eta enpresa-taldeetan eratorri diren xurgapenekin. Hazteko asmoz egindako horien adierazgarri 2009-2023 denboraldian gauzaturako honako enpresa-xurgapen hauek dira:

- MÚGICA Ehorztetxea (Eibar) eta ARANGUREN Ehorztetxea<sup>62</sup> FUNEUSKADlren eskutik, MÉMORA taldera erantsita;
- SARRIA Ehorztetxea (Getxo) ENALTAre eskutik, 2024ra arte EAEn FUNETXE izen komertziala erabili zuenak;
- VITORIA-GASTEIZ Ehorztetxea eta NUESTRA SEÑORA DE BEGOÑA Ehortetxea, ALBIAre eskutik;
- POLLOE, Donostiako lehengo udal ehorztetxea, VIRGEN BLANCA Ehorztetxea (Vitoria-Gasteiz) eta REKALDE taldea (VASCONGADA EUSKOFUNERARIAS): FURE, S.A.U.; SERVICIOS FUNERARIOS BAZTAN BIDASOA, S.L.; SERVICIOS FUNERARIOS ZARAUTZ, S.A.; TANATORIO DEL BIDASOA, S.A.U.; TANATORIO DONOSTIALDEA DONOSTIALDEKO BEILATOKI, S.A.U.<sup>63</sup>, MÉMORAren eskutik.

### 3. Taula. Hileta-taldeak eta enpresa handiak EAEn. 2024

HILETA-TALDEA	EAEn ERROTUTAKO EHORZTETXEAK	EAEn ERROTUTA EZ DAUDEN EHORZTETXEAK*
ALBIA	ALBIA (VITORIA-GASTEIZ, AMOREBIETA-ETXANO, BILBO/BOLUETA, BILBO/SANTUTXU, ERMUA, IURRETA, BERGARA, DONOSTIA, EIBAR, ZUMAIA)	
ENALTA**	ENALTA (BASAURI, BILBO, GETXO, MUNGIA)	
GRUPO INTERFUNERARIAS	INTERFUNERARIAS (BARAKALDO)	
GRUPO MÉMORA	MÉMORA (LAGUARDIA, MURGIA, OION, VIRGEN BLANCA, DONOSTIA/ZORROAGA, DONOSTIA/BENTA BERRI, ERRETERIA, ZARAUTZ) MÉMORA VASCONGADA (DONOSTIA/ERREKALDE, ANDOAIN, DONOSTIA/MORLANS, HERNANI, OLABERRIA, OIARTZUN, PASAIA, TOLOSA, BILLABONA) MÉMORA TABISA, MÉMORA ZENTOLEN BERRI FUNEUSKADI (BILBO/REKALDE ZU., BILBO/ ZUMAL; BILBO/SANTUTXU, BARAKALDO, GALDAKAO; LEIOA, PORTUGALETE, SANTURTZI, SESTAO), ARANGUREN (BALMASEDA, MUSKIZ, ZALLA) CARRANZA, MUGICA	

\* 2023 urtean zerbituzak EAEn eman dituztenak

\*\* Lehen FUNESPAÑA eta EAEn FUNETXE A

Iturria: Egileak prestatua.

61 MÉMORA: Haren [web](#) orrian «Funeuskadi MéMora taldera eransten da» adierazten du (2024ko iraila).

62 MLBN [C/1157/20: CATALANA OCCIDENTE / FUNERARIA ARANGUREN](#).

63 CNMC [C/1151/20: MÉMORA / REKALDE / IRACHE](#).





Hurrengoak taldez talde biltzen dira edo enpresa handiak dira.

Erkidegoko enpresa handiak zirenak, FUNEUSKADI eta VASCONGADA/REKALDE, MÉMORA taldekoak dira, aseguru-sektorearekin, OCCIDENT, bertikalki integratuta dagoena. Vitoria-Gasteizen, –Arabako heriotzen % 76a biltzen dituen— tokiko hiru enpresatik bi (VITORIA-GASTEIZ eta VIRGEN BLANCA) ALBIA eta MÉMORAko<sup>64</sup> kide dira, hurrenez hurren.

### 4.3. Integrazio bertikala

Hileta-zerbitzuak emateko moduak integrazio bertikaleko prozesuak laguntzen ditu, zerbitzu ezberdinetako hornitzaileak enpresa baten batuz, eskala ekonomiak eremu honetan oso probetxugarriak baitira.

Sektore honetan, oro har, lau integrazio bertikal mota beritzen dira, lotutako merkatuetan jarduten duten eragileen arteko elkarrekintzaren arabera: aseguru-etxe/ehorztetxe, hilerri/ ehorztetxe kudeaketa, ospitale edota geriatriko/ehorztetxe eta ehorztetxe/beilatoki<sup>65</sup>.

Integrazio bertikal hauen artean, heriotza-asegurua eta hileta-sektore merkatuen artekoa nabarmentzen da, hileta-zerbitzuak emateko eskaria heriotza-asegurua eskaintzen dituzten aseguru-etxeek partzialki bitartekotzen dituztelako. Integrazio mota hau V.6 atalean aztertzen da zehaztasun gehiagorekin.

## 5. KONTZENTRAZIOA ETA MERKATU-BOTEREA

Merkatu-kuotek eta kontzentrazio mailak merkatu adierazgarriaren egitura eta enpresen

lehiakortasunaren garrantziari buruzko informazioa ematen dute eta, hortaz, merkatu horren lehiakortasun egoerari buruzkoak lortzea ahalbidetzen dute. Dena den, analisi zehatzagoetan, merkatu-kuotek ematen duten informazioa honako beste elementuekin batera interpretatu behar da: kontzentrazio-indizea, integrazio bertikala, sarrera-oztopoak, merkatu adierazgarriaren berezko ezaugarriak...

Jarraian adierazten diren merkatu-kuotak<sup>66</sup> hileta-enpresa bakoitzak emandako zerbitzuen arabera kalkulatu dira, beti kontuan hartuta hileta-taldeek edo ehorztetxeek enpresa eta ordezkariak ezberdinen bitartez zerbitzuak ematen dituztela. Bestalde, kontzentrazio maila globala neurtzeko Herfindahl-Hirschman Indizea (HHI)<sup>67</sup> emandako hileta-zerbitzuei aplikatu zaie, baita ere C1, C2, C3, C4 y C5<sup>68</sup> pilatutako kuotak, lehen bost eragileenganainoko iristen den merkatu-kuotaren baturari dagokiona.

Zenbait merkatu adierazgarrietan azpimerkatuak ematen direla ikusi da<sup>69</sup>. Haien analisia merkatu adierazgarri garrantzitsuen kasuetan, Bilbo Handia eta Donostialdea, gehitu da.

66 Egileak prestatua, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak, Hilotzen Osasun sistema kudeatzen duenak (Hileta jardueren kudeaketa eta Baimen lortzea), hornitutako informazioarekin.

67 Herfindahl-Hirschman Indizea (HHI) merkatuko lehiakide kopurua eta haien partehartze erlatiboa kontuan hartzen ditu. HHIk proportzioz pisu gehiago ematen die enpresa handiagoen merkatu-kuotei. Haren balioak zero (merkatu atomizatu) eta 10.000 (monopolio hutsa) artean dabilta. Lehia horizontaleko arazoak ez dira jasotzen merkatuaren HHI 1.000 baino gutxiagokoa bada. 1.000 eta 2.000 artekoa izatekotan, kontzentrazioa erdikoa dela esan nahi du eta 2.000 baino gehiagokoa baldin bada, altua (muga hauek ezberdinak izan daitezke; hala, AEBko Justizia Departamentuak azkeneko balio hau 2.500en ezartzen du).

68  $C_n$ , lehenengo eragilearen edo lehenengo bi/hiru/lau/bost eragileen merkatu kuoten batuketara bezala kalkulatu.

69 Dena den, honek ez du ikerlan honetan kontuan hartu diren merkatuen analisi jeneralistarentzat proposatutako mugaketa geografikoa indargabetzen, baizik eta ezarritako merkatu adierazgarrien analisi zehatzagoak egiterako orduan kontuan hartu behar den elementu bat da.

64 Ehorztetxe- eta hari lotutako jardueretako enpresa-sailkapena hasten duten enpresak. Iturria: [Economía digital](#).

65 COMISION GALEGA DE COMPETENCIA. [4/2022 Ebazpena - TANATORIO DE POJO](#).

## 5.1. Araba

### 5.1.1. Arabako Kantaurialdea

4. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arabako Kantaurialdea eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
LARRAZ	90%-95%	90%-95%	90%-95%
MÉMORA-FUNEUSKADI	0%-5%	0%-5%	0%-5%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			8256

### 5.1.2. Arabako Errioxa

5. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arabako Errioxa eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA	65%-70%	60%-65%	70%-75%
ALBIA	10%-15%	10%-15%	5%-10%
FUNERARIA SAN JOSE	5%-10%	10%-15%	5%-10%
SERVICIOS FUNERARIOS DE HARO	5%-10%	0%-5%	5%-10%
LAUZURICA	5%-10%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			5225

### 5.1.3. Araba Erdialdea

6. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Araba Erdialdean (Vitoria- Gasteiz eta alboko eskualdeak). 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
ALBIA	60%-65%	60%-65%	65%-70%
MÉMORA	20%-25%	20%-25%	20%-25%
LAUZURICA	5%-10%	10%-15%	5%-10%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			5277

## 5.2. Bizkaia

### 5.2.1. Arratia-Nerbioi

7. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Arratia-Nerbioi eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
LARRAZ	40%-45%	40%-45%	50%-55%
GALARZA	35%-40%	35%-40%	25%-30%
ALBIA	10%-15%	10%-15%	10%-15%
MÉMORA-FUNEUSKADI	5%-10%	0%-5%	5%-10%
SERVISA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			3397



## 5.2.2. Durangaldea

8. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Durangaldean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
ALBIA	35%-40%	35%-40%	35%-40%
BASAGUREN	20%-25%	20%-25%	15%-20%
MÉMORA-FUNEUSKADI	15%-20%	10%-15%	15%-20%
ARRATE	10%-15%	10%-15%	10%-15%
LARRAZ	5%-10%	5%-10%	5%-10%
GALARZA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			2395

## 5.2.3. Bilbo Handia

9. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Bilbo Handia eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-FUNEUSKADI	45%-50%	40%-45%	35%-40%
ALBIA	15%-20%	15%-20%	15%-20%
BIZKAIA	10%-15%	10%-15%	10%-15%
ENALTA	10%-15%	10%-15%	5%-10%
SERVISA	5%-10%	5%-10%	10%-15%
TANADEUSTO	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GALARZA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			2258

Azpieskualdez azpieskualde, 2023an gertatutakoa ikusita, Nerbioi Garaia eskualdean izan ezik, FUNEUSKADIK, MÉMORA taldeak, % 25 baino gehiagoko merkatu kuotak hartzen ditu.

10. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Bilbo Handiko azpieskualdeetan. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	Alto Nervion	Bilbao	Margen Izquierda	Margen Derecha	Txorierrri
FUNEUSKADI	10%-15%	40%-45%	45%-50%	35%-40%	25%-30%
ALBIA	45%-50%	15%-20%	5%-10%	5%-10%	10%-15%
BIZKAIA	0%-5%	0%-5%	35%-40%	10%-15%	5%-10%
SERVISA	5%-10%	15%-20%	0%-5%	5%-10%	10%-15%
ENALTA	0%-5%	10%-15%	0%-5%	25%-30%	5%-10%
TANADEUSTO	0%-5%	5%-10%	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GALARZA	10%-15%	0%-5%	0%-5%	0%-5%	20%-25%
CANTÁBRICA	0%-5%	0%-5%	0%-5%	0%-5%	0%-5%
LARRAZ	5%-10%	0%-5%	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023	2931	2517	3550	2468	1862

#### 5.2.4. Enkarterria

11. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Enkarterria eskualdean. 2023ko HHI

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-FUNEUSKADI	85%-90%	80%-85%	75%-80%
BIZKAIA	0%-5%	5%-10%	0%-5%
UMARAN	0%-5%	0%-5%	5%-10%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	5%-10%
SERVISA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			6322

#### 5.2.5. Gernika-Bermeo

12. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Gernika-Bermeo eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
URIBE	40%-45%	40%-45%	45%-50%
ZULUETA	25%-30%	25%-30%	20%-25%
IZARO	25%-30%	20%-25%	20%-25%
MÉMORA-FUNEUSKADI	0%-5%	0%-5%	0%-5%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			3138

#### 5.2.6. Markina-Ondarroa

13. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Markina-Ondarroa eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
LEA-ARTIBAI	55%-60%	55%-60%	55%-60%
URIBE	30%-35%	30%-35%	30%-35%
ARRATE	0%-5%	0%-5%	0%-5%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	5%-10%
MÉMORA-FUNEUSKADI	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0,00%	0,00%	0,00%
IHH 2023			4083

#### 5.2.7. Plentzia-Mungia

14. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Plentzia-Mungia eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
ENALTA	45%-50%	40%-45%	40%-45%
MÉMORA-FUNEUSKADI	15%-20%	20%-25%	20%-25%
ALBIA	10%-15%	10%-15%	10%-15%
ZULUETA	5%-10%	5%-10%	5%-10%
BIZKAIA	0%-5%	5%-10%	5%-10%
INTERFUNERARIAS	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			2528



### 5.3. Gipuzkoa

#### 5.3.1. Debagoiena

15. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Debagoiena eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
ARRASATE HIL ZERBITZUAK	40%-45%	40%-45%	40%-45%
SAN FELIPE	15%-20%	20%-25%	15%-20%
EUSKALDUNA	0%-5%	25%-30%	25%-30%
OROILORE	20%-25%	0%-5%	0%-5%
MOYUA	5%-10%	0%-5%	5%-10%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			3158

#### 5.3.2. Bidasoa Behera

16. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Bidasoa Behera eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-TABISA	90%-95%	70%-75%	60%-65%
IRUN	0%-5%	20%-25%	30%-35%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
HONDARRIBIA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			5218

#### 5.3.3. Debabarrena

17. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Debabarrena eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-FUNEUSKADI	40%-45%	45%-50%	45%-50%
ALBIA	25%-30%	25%-30%	25%-30%
ETXEBERRIA	15%-20%	20%-25%	20%-25%
IPARRAGUIRRE	0%-5%	0,00%	0,00%
MÉMORA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			3577

#### 5.3.4. Donostialdea

18. Taula. 2021, 2022 eta 2023 urteetako merkatu-kuotak Donostialdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-VASCONGADA	80%-85%	80%-85%	80%-85%
ALBIA	5%-10%	5%-10%	5%-10%
ORBEGOZO	5%-10%	5%-10%	5%-10%
GONZÁLEZ	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			6689

2023 urtean azpieskualdetan sakontzen bada, MÉMORA lehenengo enpresa dela ikus daiteke eta hiriburuan, Donostian, nabarmentzen da, non hamar hileta-zerbitzutik bederatzi ematen dituen.

### 19. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Donostialdeko azpieskualdeetan. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	Donostia	Hernanialdea	Oiartzunialdea
MÉMORA-VASCONGADA	85%-90%	60%-65%	80%-85%
ALBIA	5%-10%	0%-5%	15%-20%
ORBEGOZO	0%-5%	25%-30%	0%-5%
GONZÁLEZ	0%-5%	5%-10%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH	7632	4678	6770

### 5.3.5. Goierri

### 20. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Goierri eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
OYARBIDE	50%-55%	50%-55%	55%-60%
SANTA ISABEL	40%-45%	40%-45%	35%-40%
MÉMORA-VASCONGADA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			4866

### 5.3.6. Tolosaldea

### 21. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Tolosaldean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
OYARBIDE	65%-70%	60%-65%	70%-75%
MÉMORA-VASCONGADA	30%-35%	30%-35%	25%-30%
ALBIA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
INTERFUNERARIAS	0%-5%	0%-5%	0%-5%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			5930

### 5.3.7. Urola Kosta

### 22. Taula. 2023 urteko merkatu-kuotak Urola Kosta eskualdean. 2023ko HHI.

Ehorztetxea	2021	2022	2023
MÉMORA-VASCONGADA	40%-45%	35%-40%	40%-45%
CARMONA	30%-35%	35%-40%	30%-35%
ALBIA	20%-25%	20%-25%	20%-25%
GAINONTZEKOA	0%-5%	0%-5%	0%-5%
IHH 2023			3326

### 5.4. Ondorioa: merkatuak eta kontzentrazioa

Aztertutako merkatu guztietan HHI 2.000tik gorakoa da, merkatuen arteko banaketa dibergentea izan arren kontzentrazio maila altua adierazten duena<sup>70</sup>.

Horrela, Arabako Kantaurialdean –enpresa bakar batek merkatuaren % 90a kontzentratzen du, 2009 urtean ere gertatzen zen bezala– eta Donostialdean –non MÉMORAK REKALDE (VASCONGADA) taldearen erosi ondoren kontzentrazioa handitu eta enpresa lehia murriztu duen– eskualdeen kontzentrazio-maila nabarmentzen dira.

Aitzitik, Bidasoa Beheran eta Tolosaldean 2009 urtearekiko kontzentrazioa gutxitu da, lehiakideen sarrerei edo finkapenei esker.

Kontzentrazio gutxiago duten eskualdeak Bilbo Handia, Durangaldea eta Plentzia-Mungia dira eta enpresa lehiakide gehiago duten eskualdeak ere.

<sup>70</sup> Merkatu-kuotatan oinarritutako adierazleak ebaluazio tresnak edo abiapuntuak dira eta sektoreko lehia eraginkor maila osatzen duten baldintza eta faktoreen testuinguru zabala goan aintzat hartu behar dira. Testuinguru honetan, HHI adierazgarri kontsistentea da, nahiz eta eman daitezkeen lehiarako arriskuak zehazteko bakarka kontsidera ezin daitezkeen, baizik eta merkatuak sakonago aztertu behar dira.

## 23. Taula. 2023 urteko merkatu-kuota laburpena eskualdez eskualde. 2023ko HHI.


ESKUALDEA	N>2%	C1	C2	C3	C4	C5+	IHH
Arabako Kantaurialdea	3	90%-95%	90%-95%	95%-100%			8256
Arabako Errioxa	4	70%-75%	75%-80%	85%-90%	95%-100%		5225
Araba Erdialdea	3	65%-70%	90%-95%	95%-100%			5277
Arratia-Nerbioi	5	50%-55%	75%-80%	85%-90%	90%-95%	95%-100%	3397
Bilbo Handia	6	35%-40%	55%-60%	70%-75%	75%-80%	90%-95%	2258
Durungaldea	6	35%-40%	55%-60%	70%-75%	85%-90%	90%-95%	2395
Enkarterria	4	75%-80%	80%-85%	85%-90%	90%-95%		4032
Gernika-Bermeo	4	45%-50%	70%-75%	90%-95%	90%-95%		3138
Markina-Ondarroa	4	55%-60%	85%-90%	90%-95%	90%-95%		4083
Plentzia-Mungia	6	40%-45%	60%-65%	70%-75%	80%-85%	85%-90%	2528
Bidasoa Behera	2	60%-65%	95%-100%				5218
Debarrena	3	45%-50%	75%-80%	95%-100%			3577
Debagoiena	4	40%-45%	60%-65%	90%-95%	95%-100%		3158
Donostialdea	4	80%-85%	85%-90%	90%-95%	95%-100%		6689
Goierri	2	55%-60%	95%-100%				4866
Tolosaldea	2	70%-75%	95%-100%				5930
Urola Kosta	3	40%-45%	70%-75%	95%-100%			3326

N: Haien merkatu-kuota %2 baino gehiagokoa den merkatuan dauden enpresa kopurua.

C1: Enpresa baten kuota; C2: Bi enpresen kuota; C3: hiru enpresen kuota; C4: lau enpresen kuota; C5: bost enpresa edo gehiagoren kuota.

2009-2023 denboraldian zerbitzuak kontuan hartuta, aldaketa garrantzitsuenak enpresa-kontzentrazioari dagokionez hauek izan dira: Donostialde, Araba Erdialde eta Arabako Errioxa eskualdeetan kontzentrazioa handitzea gertatu da eta Bidasoa Behera eta Tolosaldekoa eskualdeetan jaitsi egin da.

## 3. Grafikoa. HHI konparazioa: diferentziala (2009-2023)



## 24. Taula. % 40 baino gehiagoko merkatu-kuota duten ehorztetxeak. 2023.

EHORZTETXEA		ESKUALDEAK: %40 BAINO GEHIAGOKO MERKATU-KUOTA	40%-45%
ARRASATE	DEBAGIOENA		45%-50%
LARRAZ	KANTAURI ARABARRA	ARRATIA-NERBIOI	50%-55%
LEA ARTIBAI	MARKINA-ONDARROA		55%-60%
URIBE	GERNIKA-BERMEO		60%-65%
OYARBIDE	GOIERRI	TOLOSALDEA	65%-70%
ALBIA	ARABA ERDIALDEA		70%-75%
ENALTA	PLENTZIA-MUNGIA		75%-80%
GRUPO MÉMORA	ERRIOXA ARABARRA	BIDASOA BEHERA	80%-85%
	DONOSTIALDEA	UROLA KOSTA	90%-95%
	DEBABARRENA	ENKARTERRIA	

Enpresa edo talde batek merkatuaren % 40a baino gehiagoko merkatu-kuotak —Europako Batzordeak merkatu-boterea ote dagoen aztertzeko ehuneko erreferentea hartzen duena da<sup>71</sup>— dituzten merkatuak aztertzen badira, aipatutako kuota eskualde guztietan gainditzen dela ikusten da, Durangaldean eta Bilbo Handian izan ezik. Hurrengoko enpresak nabarmentzen dira eskualde bat baino gehiagotan daudelako: MÉMORA, sei eskualdetan (gipuzkoar kostaldea hartzen duten lau eskualde mugakideak, Arabako Errioxa eta Enkarterria); OYARBIDE (bi eskualde mugakideetan) eta LARRAZ (bi eskualde mugakideetan).

Honako hauen eskualde-kuotak bereziki altuak dira: LARRAZ Arabako Kantaurialdean, MÉMORAkoa Donostialdean (VASCONGADA) eta FUNEUSKADI Enkarterriko eskualdean.

71 Batzordearen jakinarazpena—Enpresa menperatzaileen gehiegizko jokabide baztertzailerik EBko Itunaren 82. artikulua-ren aplikazioan bere kontrol lehentasuneei buruzko orientazio bideak. Nagusitasun egoerak eragile ekonomikoak halako indarra izatea suposatzen du, non bere enpresa hornitzaile, lehiakide eta bezeroekiko independentziarekin jardun dezakeen. Nagusitasun egoerak ahalbidetzen du hura daukan enpresak aipatutako lehia hori garatzen den baldintzetan eragin handia izatea —ezartzen ez baldin baditu— eta, nolabait ere, edozein lehia baldintzatzailetik kanpo jardutea, baldin eta jarduera hori kalte egiten ez badio. Dena den, nagusitasun egoera ez egoteak ez du merkatuan nolabaiteko lehia egoera egoteak. 1979ko otsailaren 13ko EBJAE, 85/76 gaia, Hoffmann La Roche [ECLI:EU:C:1979:36].

Esperientziari helduta, zenbat eta altuagoa izan merkatu-kuota eta zenbat eta kuota hori denboran gehiago luzatu, orduan eta probabilitate handiagoa da nagusitan egoeran baten aurretiazko zantzu garrantzitsu baten aurrean egoteko, baina balorazio egokia egiteko, enpresaren jokabidean lehia-presioa eragin dezaketen faktore guztiak kontuan hartu behar dira. Hots, merkatu-botere posible baten abiapuntu-zantzu den % 40aren kuota erreferentea merkatu bakoitzarekiko ikertu behar da, «kasuz kasu», merkatu baldintzak eta bereziki merkatuko dinamika eta produktuen desberdintzapen maila baloratu.

Hileta-zerbitzuen merkatuaren kasuan, hurrengoak izango lirateke kontuan hartu beharreko alderdi batzuk:

- merkatuaren tamaina eta eskuragarritasuna —edo bideragarritasuna ziurtatzen duen gutxieneko eskaria izateko beharra—.
- aseguru-etxeen eta ehorztetxeen integrazio bertikala edo, integrazioerik ezean, lehentasuneko erlazioa; horren bidez hileta-eragile batzuek haien merkatu-kuotak babes ditzakete heriotza-aseguruei loturakoan.
- beilatoki bat izateko beharra, lehiakideei aurre egiteko eta haietatik bereizteko azpiegitura





estrategikoa dena, inbertsioa behar duena udal hirigintza arauak (kokapena, tamaina, areto-kopurua) baldintzatutakoa eta erraz erreproduzitu ezin daitekeena.

- eskari partikularren zati batek – heriotza-asegururik ez duena– negoziazio-ahalmen txikia du, bere ezagutza eta egoera pertsonalak direla medio.
- zerbitzuaren ohitura eta proiektio sozialaren garrantzia, prezioaren garrantzia lehia aldagai bezala murrizten duena.

Edozelan ere, nagusitasun egoera duten enpresek kontu handia izan behar dute abusuak eragin daitezken jarduketak ez burutzeko, bai hileta-zerbitzuen merkatuan bai hari lotutakoetan, hala nola beilatoki zerbitzuaren ukapena –funtsezko zerbitzua izanez gero–, bidezkoak ez diren tarifa diskriminatzaileak ezartzea, produktuak lotzea, aseguratzailerekin lehenasuneko harremanak erabiltzea baldintza garestiagoak ezartzeko...

## 6. ASEGURU-ETXEAK ETA EHORZTETXEAK

### 6.1. Heriotza-asegurua

Heriotza aseguruak<sup>72</sup> –ez bizitza-asegurua dena– aseguratuari hileta-zerbitzua ematea bere gain hartzen du –bizitza-aseguruak ez bezala, non kapital bat ordaintzen den heriotza kasuetan–. Horretarako, aseguru-etxeak hileta enprekin kontratatzen du eta, kontratatutako polizaren arabera, hileta-zerbitzuari lotutako beste estaldura batzuk sar ditzake<sup>73</sup>.

Kapital guztia erabiltzen ez bada –hildakoren senideek posible diren zerbitzu guztiak ez erabiltzea erabaki dutelako edo kapitala soberan delako– soberakina oinordekoei itzuli behar zaie. Hortik, emandako zerbitzu bakoitzaren zenbateko banakatuen zehaztutako kostea eta dagokien fakturak jasotzen dituen informazioak, hala balitz, kontratatutako polizako erabili ez diren zenbatekoak eskatzen lagunduko zuen.

72 [50/1980 Legeaz. urriaren 8koa, Aseguru Kontratua buruzkoa \(AKL\)](#), gain, hurrengoak ere aplika daitezke: [20/2015 Legea, uztailaren 14koa, Aseguru eta Berraseguru entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa](#), zeinak bere A ERANSKINEKO (Aseguru-arloak) 19. atalean, Heriotzak, zera adierazten du: «hurrengokoak barne hartzen ditu: heriotza gertatuz gero hileta-zerbitzuak emango direla bermatzen duten aseguru-eragiketak barne hartzen ditu, edo subsidiarioki, ezinbesteko arrazoiengatik edo edo zerbitzua aseguratzailerak eskainitakoak bestelako bitartekoen bidez egin delako, aseguratzailerak aseguraturako zenbatekoa hildako aseguratuaren jaraunslerei ordaindu beharko die, zeinak heriotza baterako batez besteko hileta gastuak ezin ditu gainditu».

[3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako zenbait neurriena, zeinaren bidez Europar Batasuneko hainbat zuzentarau Espainiako ordenamendu juridikora eranstean dira sektore jakin batzuetan; aseguru pribatuenean; pentsio plan eta funtsean; zerga arloan eta auzi fiskalenean](#), bere 184. artikuluan, aseguruaren erregulazioari buruzkoa (salmenta jardute konbinatu eta lotuak), aseguruzkoak ezberdinak diren zerbitzu eta produktu osagarriekin batera pakete edo akordio beraren parte bezala eskaintzen diren aseguru kontratuei buruzkoa da. Bestalde, sektoreak badu bere autorregulazioa ere, honako hauen bidez: jardunbide egokien gidak, heriotza-aseguru modalitate ezberdinen kontzeptualizazioa eta hartzaileari aurretiko araupetutako informazio ohar bat ematea.

[UNESPA JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA, HERIOTZA-ASEGURU KONTRATAZIO ARLOAN, 2017](#) eta [UNESPA](#).

73 UNESPA. [Heriotza estaldura](#).

Heriotza-asegurua berez lurraldeko eremu geografikoko merkatu produktu bat dela aintzakotzat hartzen da, aseguru-etxeen presentzia fisikoak garrantzi handia baitu arreta emateko eta aseguratuak hartatzeko eta erakartzeko<sup>74</sup>.

Heriotza-asegurua bereziki familiartekoa da: familia unitate osoarentzat kontratatzen da eta seme-alabek jaraunsten dute. Hori dela eta, iraunkortasunari dagokionez, gurasoen etxetik irteteko unea eta gurasoen heriotzarena dira momentu garrantzitsuak.

Heriotza-asegurua erabiltzailea fidela da, batez ere, asegurua aldatzeak kapitala galtzea dakarrela uste duelako —negozio gatibu bat da, non kapitala ezin den erreskatatu—, eta hori oztopo bat da aldaketa hori egiteko, familia-izaeragatik eta oinordetzan jaso izateko duen joeragatik, eta salmenta-prozesuan elkarrekintza pertsonalen eragin nabarmenagatik, leialtasun hori indartzeko funtsezko zeregina betetzen baitute<sup>75</sup>.

Heriotza-asegurua erregistratutako aseguru etxeek eskaintzen dituzte<sup>76</sup> eta 2022 urtean, 59 zeuden<sup>77</sup>.

## 6.2. Ehorztetxe hautaketa

[50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuari buruzkoa \(AKL\)](#), zerbitzu emailea aukeratzeko askatasun efektiboa bermatzera bideratuta dago eta bere 106. quater artikulua hurrengoa ezartzen du:

*Osasun asistentzia-, mendekotasun- eta heriotza-aseguruetan, asegurutzaileek asegurudunak zerbitzu emailea aukeratzeko askatasuna bermatuko dute, kontratuan ezarritako muga eta balditzen barne. Kasu hauetan, asegurutzaileak aukeratzeko askatasun efektiboa bermatzen duen eta irisgarri*

74 MLBN, [C/1427/23 TANATORIOS DE CÓRDOBA/TANATORIO DE FUENTE OBEJUNA](#), [C/1379/23 TANATORIOS CÓRDOBA/LUQUE](#), [C/1353/22 TANATORIOS DE CÓRDOBA/FUNERARIA Y TANATORIOS KIKO](#), [C/1086/19 SANTA LUCÍA /FUNESPAÑA](#), [C/0928/18 GRUPO CATALANA OCCIDENTE/SOCIEDADES ADQUIRIDAS](#), [C/0499/13 DIVINA PASTORA/LÁLIANCA](#), [C/0370/11 MAPFRE/ACCIONISTAS SINDICADOS/FUNESPAÑA](#), eta jadanik iraungitako LDTren ebazpena [C85/04 INTUR/EURO STEWART](#), espedientean.

75 FUNOS, [Hileta-sektorearen 2023ko barometroa](#), 96 orrialdea.

76 ASEGURU ETA PENSIO FUNTSEN ZUZENDARITZA NAGUSIA. [Aseguru eta berraseguru entitate erregistroa](#).

77 ASEGURU ETA PENSIO FUNTSEN ZUZENDARITZA NAGUSIA. [Aseguru eta pensio funtsak. 2022ko txostena](#).

*den zerbitzuak ematen dituztenen zerrenda jarri behar du aseguratuaren esanetara, berariaz zerbitzuak emateko entitate bakar bat ezartzen den kontratuen kasuetan izan ezik.*

*Heriotza-aseguruetan aplikagarria izango da 106 bis.2 artikuluan ezarritakoa, oinordek zerbitzuak asegurutzaileak eskaintakoez kanpoko bitartekoan bidez kontratatzen badituzte, aurreko paragrafoaren arabera.*

Bere 106 bis artikuluan, aldiz, hurrengoa arautzen da:

*«2 Asegurutzaileak ezin izan badu prestazioa eman bere borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo zerbitzua asegurutzaileak eskaintakoez bestelako bitartekoan bidez egin delako, asegurutzaileak asegurututako zenbatekoa hildako aseguratuaren jaraunslerei ordaindu beharko die, eta ez da emandako zerbitzuen kalitatearen erantzule izango.*

Aseguru-etxeak eskaintzen ez dituen ehorztetxeak aukeratu nahi dutenek hileta-zerbitzuen zenbatekoa aurreratu beharko dute, eta asegurututako zenbatekoa jaso orduko zenbait izapideei aurre egin beharko die (eskaerak, kudeaketak, joan-etorriak...) horrek dakartzaten atzerapenekin. Horrez gain, aseguru-etxeak eskaintzen dituen beste hainbat zerbitzuei uko egin beharko diete, hala nola, laguntza pertsonaren izatea. Oztopo horiek, bai eta senide baten heriotzaren inguruko inguruabar emozionalek eta hautatzeko aukera dagoenik ez jakiteak ere, aukera hori gutxitan gauzatzera eramaten dute, eta, beraz, asegurutzaileez kanpoko ehorztetxeek asegurututako zerbitzuetarako sarbidea ia ez dago<sup>78</sup>.

Eta hau gehienetan horrela da erabiltzaileek asegurutzailearen iradokizunak kontuan hartzen dituztelako eta aseguru-etxeari lotutako ehorztetxeak heriotza kudeatzen duelako; eta soilik asegurutzaileei lotutako ehorztetxeek hileta-zerbitzuak egiteko beharrezko baliabideak ez dituzten eremuetan, ehorztetxe independenteek eskura ditzakete zerbitzuak<sup>79</sup>.

78 Aukeratzeko askatasuna izan zen MLBN SANTA LUCÍA/ALBIA kontzentrazioari baldintza zorrotzak ezartzera bultzatu zuen baldintzetako bat, MAPFREren ehorztetxea (FUNESPAÑA) erosterako orduan. Ostean, baldintza horiek direla eta bi enpresek operazioa ez burutzea erabaki zuten. MLBN [C/1086/19 SANTA LUCIA/FUNESPAÑA ESPEDIENTEA](#).

79 HILETA ZERBITZUEN ELKARTE NAZIONALAREN (PANASEF) aitortpenen arabera. Halaber, SANTA LUCÍA-k hurrengoa nabarmendu zuen: «[...]»

Errealitate hori dela eta, erregulazioa eguneratzeko beharra azpimarratu behar da, gardentasun handiagoa bermatzeko eta aukeratzeko askatasuna benetan baliatzea bermatzeko, hildako aseguratuen gertukoei karga eta atzerapen gehigarriak ezarri gabe. Halaber, hurbilekoek ehorztetxe guztietara jo ahal izatea bermatu behar da, mugarik gabe eta aseguru-etxeak justifikatu gabeko bazterketak ezarri gabe. Eta hori guztia, aseguru-etxeetako buru batek, arrazoirik gabe, integratutako edo lotutako ehorztetxearekiko izan ditzakeen jokabide desleialak saihesteko.

### 6.3. Kontzentrazioa eta integrazioa

Heriotza-aseguru merkatuak hileta zerbitzu integralen txikizkako merkatuarekin lotura handia dauka eta harengan eragin zuzena izan dezake eta, hortaz, lotutako merkatutzat hartzen da<sup>80</sup>. Izan ere, zerbitzu eskariaren zati garrantzitsua aseguru-etxeetatik dator, hileta-zerbitzuen kudeaketa bere gain hartzen dutenak, heriotza-aseguru polizen balditzen arabera<sup>81</sup>.

Aseguru-etxeek hileta-zerbitzuen merkatuan bi moduz jarduten dute batez ere: haien aseguradunentzako hileta-zerbitzuak kontratatuz edota ehorztetxetan parte hartuz.

Heriotza-aseguru sektoreko enpresen hileta-zerbitzuetan parte hartzea zuzenean edo filialen bitartez egiten da, aseguru-etxeen hileta sektorekiko

integrazio bertikala<sup>82</sup> gero eta zabalago den prozesu batean, baita kontzentrazio horizontalen<sup>83</sup> edo bestelako lankidetzen<sup>84</sup> bultzadarekin. Horrela, hileta-zerbitzu merkatuak kontzentrazio prozesu bat jasan du, non aseguru-etxeek paper garrantzitsua izan duten. Aseguru-etxeek hileta-zerbitzu sektoreko eragileetan parte hartzerakoaren ondorioz, zerbitzuak kanpoan kontratatzeke beharra desagertzen da eta, horrela, merkatuan askeago eta gardentasun gutxiagorekin jardun dezakete, bai erabiltzaile bai beste eragileekiko, batez ere beilatoki, hilerri edo errausketa establezimenduak kudeatzen badituzte<sup>85</sup>.

Halaber, hileta-enpresen jabetzaren bidez, aseguru-etxeek kate osoa kontrola dezakete, sinergia eta kostuen kontrol handiagoak sor ditzakete, eta zerbitzua ematean beren kalitate-estandarrak berma ditzakete. Gainera, horrela, negozioaren kate hori inbertsio-funts handien –tarifak gorantz presionatzeko arriskuarekin– eskuetan erortzea saihestuko litzateke<sup>86</sup>.

Bestalde, enpresa-talde baten edo ezarpen handiko enpresa handi baten kidea izateak abantaila ekonomiko erabakigarriak ekarri ditzake, ondoko eta lotutako merkatuetan lehiatzeko orduan<sup>87</sup>.

Kontzentrazio eta integrazio bertikalek –talde barruko hornikuntza indartzen dutenak– arrisku handiak sor ditzakete –lehiakideak kanporatzea barne– handizkako eta txikizkako hileta-zerbitzuen eta heriotza-aseguruen merkatuetako lehian.

erabiltzailearen edo asegurudunaren aukeratzeko askatasuna jardutea ez da garrantzitsua bere kasuan [...]. Gainera, familiek halako une hain sentiberatan kudeaketak minimizatu nahi dituzte, gehienetan eskubide hori ez erabiltzea eta aseguru-etxeari deitzea azaldu dezakeena, honek tramite guztiak egin ditzan».

MLBN [C/1086/19 SANTA LUCIA/FUNESPAÑA ESPEDIENTEA](#).

80 MLBN [C/0499/13 DIVINA PASTORA/LÁLIANCA](#) eta [S/0204/09 Heriotza aseguruak](#).

Lotura, bere aldetik, antzinatek dator. XX. mendeko lehen erdialdean, ehorztetxeek ehorzketa ematearen ordainketa ezarritako diru-kopuru baten bitartez bermatzen hasi ziren. 1954n aseguru-araudian gauzatutako aldaketak zirela eta, kopuru hori heriotza-asegurua bilakatu zen eta ehorztetxeak aseguru-agentziak bihurtu ziren, horretara bideratutako agente bat zuzenduak.

81 Hileta-zerbitzuak heriotza-asegururen gehieneko kostua dira, gutxi gorabehera jardura ildo honek emandako zerbitzuen %90era iritsi arte.  
UNESPA. [ASEGURUA ETA HAREN HORNITZAILEAK \(2022ko DATUAK\)](#).

82 GRUPO CATALANA OCCIDENTEK, S.A. (GRUPO CO) hileta-zerbitzuak 2017tik burutzen ditu EAEn ASISTEA SERVICIOS INTEGRALES, S.L.U. (FUNESKADI) bitartez eta, 2023 urtetik geroztik, MÉMORA bitartez. Halaber, 2017 urtean, FUNESKADIREkin batera, PREVISORA BILBAÍNA aseguru-etxea eta AZKARÁN aseguru-bitartekotza agentzia xurgatu zituen.  
MLBN. [C/1359/22 GRUPO CO/MEMORA](#).

83 SANTALUCÍA eta FUNESPAÑAK kontzentrazio prozesu bat burutzen saiatu ziren baina hura ez zen gauzatu.  
MLBN. [C/1086/19: SANTA LUCÍA / FUNESPAÑA](#).

84 [ALLIANZ SEGUROS](#) heriotza adarrean aritzen da Preventiva Segurosekin batera, berraseguruak egiten eta zerbitzuak ematen dituen kidea bezala darabilena.

85 ACREA, [Hileta-zerbitzu sektorean sarrera errazteko eta lehia sustatzeko gomendioak](#).

86 [ABC](#).

87 ACREA, [S/02/2018 EBAZPENA, GRUPO FUNESER ASV](#).

Heriotza-polizen bitartez integratutako aseguru-etxeek etorkizuneko hileta-zerbitzua hartzen dute, eta kontsumitzaileari hainbat zerbitzu-emaileraren artean hautatzeko aukera *de facto* kendu egiten zaio; izan ere, aseguru-etxeak baldintzatzen du, neurri handi batean, aukeratzeko ahalmen hori, ahal izanez gero hileta-zerbitzuak emateko bere enpresa aukeratu baitu, gainerako hileta-enpresei lehiatzeko aukera ukatuta<sup>88</sup>. Arrisku honek EAEko hileta zerbitzuen % 50a suposa dezake, heriotza-poliza bitartez finantzatuak.

Ehorztetxeen kontzentrazio horizontalerako eta heriotza aseguru-etxeekin integrazio bertikalerako joerak integratutako erakundeen negoziatzeko ahalmena indartzen du eta lehiarekiko eragin negatiboak ekar ditzake, nola hileta-zerbitzu hala heriotza-aseguru merkatuetan.

Aseguru-merkatuan ere aritu den enpresa-talde bateko hileta-enpresa batek merkatuan nagusitasunezko egoera edo hileta-instalazio nagusien monopolioa (hala nola beilatokiak edo errausketa-labeak) duen eremu geografikoetan, honako arrisku hauek gerta daitezke lehiarentzat<sup>89</sup>:

- gainontzeko ehorztetxeek zailtasunak izan ditzakete instalazioak erabiltzeko baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan, hileta-zerbitzuak emateko orduan eta nagusi den enpresarekin lehiatzerakoan.
- gainerako hileta-enpresek zailtasunak izan ditzakete, bertikalki integratutako heriotza-aseguratzaileek aseguratuei hileta-zerbitzuak emateko, nahiz eta integratutako ehorztetxea merkatuan nagusia ez izan.

Halaber, nahiz eta aseguru-etxe batekin integratutako ehorztetxe batek nagusitasun egoeran

ez izan, gainontzeko ehorztetxeek beren aseguratuei zerbitzuak emateko zailtasunak izan ditzakete.

Horrelako jokabideak ematen baldin badira bertikalki integratutako enpresa-talde baten aldetik, bere posizioa indartzen da bai hileta-zerbitzu bai heriotza-aseguru merkatuetan. Azken emaitza izan daiteke bertikalki integratutako enpresek eremu geografiko jakin batzuk monopolizatze joera izatea, balizko prezioen igoerekin bai heriotza-aseguruei dagokienez, bai hileta-zerbitzuei dagokienez, eta hileta-zerbitzuen kalitatea okertzea, lehiarik ez dagoelako<sup>90</sup>.

Bestalde, hileta-zerbitzuak izateko zailtasunek aseguru-etxeengan ere izan dezakete eragina, integratutako ehorztetxe bat izan ala ez, nagusi den enpresaren hileta-zerbitzuak baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan kontrata ezin badituzte eta beste aukerarik ez badago edo, egotekotan, urria baldin bada.

Dena den, heriotza-aseguru/ehorztetxe kasuistika honen analisisian, kontuan izan behar da kontsumitzailearentzat onurak dakartzaten eraginkortasun ekonomikoak daudela, hala nola prezioak, kantitateak, kalitatea....

Azkenik, prezioak eta zerbitzuak emateko baldintzak ezartzeko boterea eremu geografiko bakoitzeko hileta-zerbitzuen eskaintzaren konfigurazioaren eta aseguru-etxe bakoitzaren poliza zorroaren garrantziaren eskuetan egongo dela kontuan hartu behar da.

#### 6.4. Ehorztetxeak eta aseguru-taldeak EAEn

EAEn aurkitzen diren eta aseguru-taldeetan edo enpresa handietan integratuta dauden ehorztetxeak hauexek dira:

88 Merkatuaren testaren eta MLBNn jasotako hirugarrenko ehorztetxeen erantzunen arabera. [C/1086/19: SANTA LUCÍA /FUNESPAÑA](#).

89 ACCO. [Hileta-sektorearen analisisa \(ES 28/2022\)](#).

90 MLBN. [C/1086/19 SANTA LUCÍA / FUNESPAÑA](#).



## 25. Taula. Integrazioa: ehorztetxeak eta aseguru-taldeak. EAE. 2024

EHORZTETXEA	ASEGURU TALDEA
ALBIA	SANTA LUCIA
GRUPO MÉMORA (FUNEUSKADI eta VASCONGADA barne)	OCCIDENT
ENALTA	MAPFRE
SERVISA	OCASO

Iturria: Egileak prestatua.

Horren arabera, SANTA LUCIAko aseguru-dunek ALBIA taldeko ehorztetxea daukate hiru lurralde historikoetan. Era berean, OCCIDENTek bere zerbitzuak FUNEUSKADI, VASCONGADA eta haren berezko jatorrizko instalazioei bideratzen ditu. OCASO eta MAPFREren kasuetan, hurrengoko ehorztetxe integratuak dituzte Bizkaian: SERVISA eta ENALTA, hurrenez hurren.

Adierazi beharra dago ehorzketa-zerbitzuak eskaintzeak izan ditzakeen oztopoak, ehorzketa-aseguruen merkatuarekiko harreman bertikalaren ondoriozkoak, batez ere aseguru horren sartzemaila handiak dituzten eremu geografikoetan, baita berezko instalazioak kudeatzen dituzten eragile integratuek aseguru zorro handiak dituztenetan ere<sup>91</sup>.

Heriotza-aseguruen ezarpen-maila (2022) EAEnko lurralde ezberdinetan kontuan hartzen bada, Araban ezarpen-maila baxuagoa nabaritzen da, jarraian azalduko den bezala.

## 26. Taula. Heriotza-asegurua EAEn. Ezarpena eta aseguraturakoak. Lurralde banaketa. 2022

Lurralde historikoa	Batezbesteko ezarpena (%)	Aseguratutakoak (kopurua)
Araba	31,69	104.912
Bizkaia	43,79	497.159
Gipuzkoa	41,82	298.994

Iturria: Egileak prestatua. UNESPA, [Heriotza-asegurua Espainian \(2022ko datuak\)](#).

Aseguratutako hileta-zerbitzuen estaldura-koefizienteak heriotza aseguraturakoak baino handiagoak direnez gero, Araban zerbitzuen % 40a aseguru-etxe bitartez egiten dela esan daiteke. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, ratioa % 50ra iritsiko litzateke<sup>92</sup>. Ondorioz, aseguru-etxeek merkatuan eragina izateko ahalmena dute.

### 6.5. Heriotza-aseguru merkatua EAEn. Kontzentrazioa

Integrazio bertikalak eta hileta-zerbitzu askotan eskariaren bitartekari-lanak egiteak aseguru-etxeei hileta-zerbitzu integralen txikizkako merkatuan eragina izateko ahalmena ematen die.

Integrazio bertikalaren kasuan, zerbitzuak beren ehorztetxeetara bideratzeko aukera ematen die, eta aseguru-etxeen enpresa-estrategia prezio zehatz batzuk finkatzera bideratuta egon daiteke, ondoren, heriotza-aseguruen polizetan jasanarazteko; aldiz, bideratzen duten eskari-bolumenak aukera eman diezaieke zerbitzuaren baldintzak abantailaz negoziatzeko eta zerbitzuak interesatzen zaizkien ehorztetxeetan kontzentratzeko. Horrek arriskuak dakartza lehiaren ikuspegitik, egin daitezkeen abusuak direla eta.

91 [C/1427/23 TANATORIOS DE CÓRDOBA/TANATORIO DE FUENTEBOJUNA](#)

92 Espainian, 2022 urtean, populazioaren % 46,6k heriotza-asegurua zuen eta aseguruek egindako hileta-zerbitzuak totalaren % 61,2ra igon zen. UNESPA. [ASEGURUAREN MEMORIA SOZIALA. 2023](#)

Jadanik esandakotik ondorioztatzen da aseguru-etxeek hileta-zerbitzuen eskaria bideratzeko duten boterea, baita prezioak eta zerbitzuak emateko baldintzak ezartzerako orduan duten negoziazio-boterea ehorztetxeen aurrean. Hau guztia, dena den, eremu bakoitzeko hileta-zerbitzuen eskaintzaren konfigurazioaren eta aseguru-etxearen poliza zorroaren garrantziaren arabera gauzatuko da.

Jarraian, EAEko heriotza-aseguru merkatu adierazgarriak aztertzen dira: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Merkatu-kuotak eta HHI –segidan adierazten direnak– igorritako aseguru-talde bakoitzaren zuzeneko aseguru prima bolumenaren arabera kalkulatu dira; talde bakoitzak bere aseguruak merkaturatu ditzake izen sozial eta komertzial ezberdinen bitartez kontuan hartuta.

## 27. Taula. Heriotza-asegurua. Kuota, lurralde historikoaren eta aseguru-taldearen arabera (%). 2023.

ARABA. HERIOTZA-ASEGURUA. 2023	
TALDE ASEGURATZAILEA	KUOTA (%)
SANTALUCIA	50%-55%
PREVENTIVA	10%-15%
OCASO	5%-10%
KUTXABANK	5%-10%
OCCIDENT	5%-10%
MAPFRE	0%-5%
SEGURCAIXA ADESLAS	0%-5%
GENERALI	0%-5%
GAINERAKOA	0%-5%

BIZKAIA. HERIOTZA-ASEGURUA. 2023	
TALDE ASEGURATZAILEA	KUOTA (%)
SANTALUCIA	25%-30%
OCASO	20%-25%
OCCIDENT	20%-25%
MAPFRE	15%-20%
KUTXABANK	0%-5%
SEGURCAIXA ADESLAS	0%-5%
GENERALI	0%-5%
PREVENTIVA	0%-5%
GAINERAKOA	0%-5%

GIPUZKOA. HERIOTZA-ASEGURUA. 2023	
TALDE ASEGURATZAILEA	KUOTA (%)
SANTALUCIA	35%-40%
OCASO	25%-30%
OCCIDENT	10%-15%
KUTXABANK	5%-10%
PREVENTIVA	5%-10%
MAPFRE	5%-10%
GENERALI	0%-5%
GRUPO GES	0%-5%
GAINERAKOA	0%-5%

IHH 2023

3316

IHH 2023

1956

IHH 2023

2339

Oharra: OCASO taldeak, OCASO eta ETERNA ASEGUADORA hartzen ditu barnean; OCCIDENT taldeak, NORTE HISPANA, SEGUROS BILBAO, SEGUROS CATALANA OCCIDENTE eta PLUS ULTRA SEGUROS; eta SEGURCAIXA ADESLASek, IMQ hartzen du barne.

Iturria: Egileak prestatua ICEAko datuekin. 2023ko heriotza-prima sailkapena, probintziaz probintzia (Igorritako aseguru zuzeneko prima bolumena).

Araban, kontzentrazioa altuagoa den lurraldean, SANTA LUCIAk merkatuaren % 50a baino gehiago hartzen du eta, beraz, hileta-merkatuan izango lukeen eragina emandako hileta-zerbitzuen bostena hartzerainokoa izango litzateke<sup>93</sup>. Gainera, heriotza-aseguruen % 75a hiru aseguru-etxeei dagokie –SANTA LUCIA, PREVENTIVA eta OCASO–, hiruak batera zerbitzuen heren batean esku hartuko lukete.

Bizkaian, merkatuaren banaketa orekatuagoa da eta hiru aseguru-etxek % 20-30 tarteko kuotak hartzen dituzte: SANTA LUCIA, OCASO eta OCCIDENT. Haiei MAPFRE gehitzen bazaie, hileta-zerbitzuen % 40<sup>94</sup> hartuko lukete lauen artean.

Gipuzkoan, SANTA LUCIA eta OCASO heriotza-aseguruen % 60a<sup>95</sup> merkaturatu dute. OCCIDENT

93 % 40 (aseguraturako hileta-zerbitzuen estimazio %) \*enpresaren merkatu-kuota.

94 % 50 (aseguraturako hileta-zerbitzuen estimazio %) \*enpresaren merkatu-kuota agregatua.

95 % 50 (aseguraturako hileta-zerbitzuen estimazio %) \*enpresaren merkatu-kuota agregatua.

gehitzen bazaie, hileta-sektoreari bertikalki integratutako aseguru-etxe hauek hileta zerbitzuen ia % 40a eskatzen dela ikus daiteke.

Azkenik, 2009 urterako atzerabegirako batean, non lehenengo izenak errepikatzen diren, KUTXABANK-en sarrera nabarmentzen da, heriotza-aseguruen merkaturatzea 2017an hasi zuena<sup>96</sup> eta 2023an lurralde bakoitzeko lehenengo 5 eragileen artean kokatzen dena.

## 7. SARRERAKO OZTOPOAK

Jarduera ekonomiko batean sartzeko edo aritzeko oztopoak arau, baldintza tekniko eta ekonomikoetan, merkatuaren ezaugarrietan edo lehiakideen kokapenean sor daitezke. Zenbat eta oztopo gehiago egon, orduan eta zailagoa izango da merkaturan lan egin nahi duen lehiakidearentzat merkaturan sartzeta eta ari diren eragileei erantzutea.

Hileta jarduerarako sarrera oztopoak asko eta ezberdinak dira, gaindi daitezke edo ez, eta eskaintako zerbituaren arabera (hileta-zerbitzua bera, beilatokia, errausketa-labea...) eragin ezberdina dituzte, bakoitzaren berezko ezaugarriak direla eta –geroago merkatu zehatz bakoitzean aztertuko direnak– eta araudi oztopoak –urbanistikoak eta ingurumenekoak–, tekno-ekonomikoak eta ospekoak izan daitezke<sup>97</sup>.

Gainditu beharreko lege oztopoek baldintza, karga administratibo eta derrigorrezko baimen sortak hartzen dute eta honako hauetara zabaltzen dira: kokapena, sarbideak, bulegoen ezaugarriak, areto kopurua, ekipamendu pertsonala, materiala eta teknika, etab.

96 [Noticias de Gipuzkoa](#).

97 LEA/AVC: [341ZEH2020\\_GIPUZKOAKO\\_BEILATOKIAK\\_592ZEH2022\\_TANATORIO\\_VILLABONA](#). MLBN: [C/1086/19 SANTA LUCIA / FUNESPAÑA](#), [C/1359/22 GRUPO CO/MEMORA](#), [C/1353/22 TANATORIOS DE CÓRDOBA/FUNERARIA Y TANATORIOS KIKO](#), [C/1270/22 ALBIA/TANATORIO LA PAZ](#), [C/1379/23 TANATORIOS CÓRDOBA/LUQUE](#).

Horregatik, herri administrazioek, arautze ahalmena erabiliz jarduera ekonomikoa arautzen duten xedapenak sortzen badituzte, lehia modu eraginkorrean eta mesedegarrian ezartzeko gidatzen duten printzipioak kontuan hartu behar dituzte –premia, proportzionaltasuna eta gutxiengo distortsioa, eraginkortasuna, gardentasuna eta aurreikusgarritasuna– merkatuen garapen egokia mugatzen duten lehiaren aurkako murrizketak egon ez daitezen; azken batean erabiltzaileei lehiatik erartortzen diren onurak (prezio, kalitate eta kantitate eran) ezin ezkuratzea eragin diezaieketenak<sup>98</sup>.

Kasu horietan, dagozkion jurisdikzioaren aurrean aurkaratzeko eskumenak egikaritu ditzakete lehiaren agintaritzek administrazio-zuzenbideari lotutako egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak, baldin eta horien ondorioz merkatuetan lehia eraginkorrari eusteko oztopoak sortzen badira<sup>99</sup>.

Gainera, dimentsio txikieneko operadoreek eskala-eta hedadura- ekonomietatik eratorriko abantailak ez dituzte; are gehiago, kontuan izan behar da hileta-zerbitzuen % 50an heriotza-asegurua bitartekari dela, haren baldintzak negoziatu egiten direla eta aseguru-etxeekin dagoen integrazio bertikala. Heriotza-aseguru merkatuarekin erlazio bertikaletik eratorri daitezken mugaketak ere kontuan hartu behar dira, batez ere aseguru horren ezarpen-maila handiak dauden eta berezko instalazioak kudeatzen dituzten eragile integratuek aseguru-zorro zabalak dituzten eremu geografikoetan<sup>100</sup>.

Halaber, ohitura, esperientziaren garrantzia eta erabiltzaileak fidelizatzen dituzten aurretiko

98 Honen adibideetako bat ACCOren hurrengo erregulazio txostenean dago. [«Bartzelonarako hileta-ekipamenduen ezarpen edo zabalkuntzarako plan urbanistiko berezia»](#) (2024).

99 2024ko urrian, ACCOk administrazioarekiko auzi errekurtsio bat aurkeztu du Bartzelonarako hileta-ekipamenduen ezarpen edo zabalkuntzarako plan urbanistiko bereziaren aurka, PUBren zenbait aspektuk (adibidez, beilatoki berrientzako hilerrien inguruan leku jakinak edo distantzia minimoak ezartzea) Bartzelonan beilatoki, errausketa eta, orokorrean, hileta-zerbitzuak burutu nahi dituzten eragile berrien sarrera oztopatuko dutelako uste baitu.

100 MLBN [C/1448/24 ASV FUNESER/LA RONDEÑA](#)

erreferentziak bezalako faktoreak direla eta, aurretiko esperientzia ez duten eskatzaile potentzialen zerbitzuak bereganatzeko orduan, ehorztetxeari lan komertzial handia egitera derrigortzen diote.

Handizkako merkatuek –beilatoki eta errausketa zerbitzuena bezalakoak– txikizkako mailan hileta-zerbitzuak emateko sarrerako oztopoak murrizten dituzte<sup>101</sup>. Hala eta guztiz ere, –berariazkoek nahiz inplizituek– oztopo murrizketa hori baliogabetzen dute, hileta-zerbitzuak ematen dituen ehorztetxeari beilatoki batean zerbitzua emateko oztopo gaindiezinak ezartzen dituztenean.

---

101 Izan ere, beilatoki zerbitzua gainontzeko hileta-zerbitzuetatik bereiz kontratatzeko posibilitatea baimendu zenean, legegilearen asmoa zen 1996an hasitako prozesu liberalizatzaileari benetako eraginkortasuna ematea eta sektoreko enpresen jarduketa erraztea.



## VII. HILETA-GARRAIOKO ZERBITZUAK

Gorpuak eta gorpuzkiak ehorztetxe baimenduek bakarrik garraiatu ahal dituzte, araudian ezartzen diren baldintzetan. Horretarako, hilkutxa arrunta edo berezi bat erabiltzen da, inguruabarren arabera<sup>102</sup>.

Garraioak honakoak erabiliz egin daitezke: horretarako bakarrik diren eta baldintza zehatzak betetzen dituzten hileta-autoen bidez; trenbideko furgoiak, itsasontzien edo hegazkinen bidez, ezarri beharreko berarizko araudiaren arabera; eta osasun-arloan eskumena duen sailak kasu jakin horretarako baimendu ditzakeen beste batzuen bidez<sup>103</sup>.

Hileta-garraioaren handizkako merkatuan, eskaintza osatzen dute hileta-zerbitzua emateko behar diren baimenak eta instalazioak edo ekipoak dituzten ehorztetxeek. Garraio-zerbitzua nabarmentzen da beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzen direnean eta nazioarteko aberriratzeak gertatzen direnean. Eskaria ehorztzeak osatzen dute, zerbitzu horiek emateko bitartekorik ez dutenak eta azpikontratatu egin behar dutenean.

Lehiaren aurkako kolusio jokabideak hauteman dira, hildakoen garraio jarduera oztopatzen duten baldintzak ezartzearekin lotuta; esateko, ospitale-instalazioetan hiteta-garraioa ehorztetxe jakin batzuei gortzeko akordioetan gauzatzen zirenak<sup>104</sup>.

102 [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#), EA Eren esparruan, hilotzen garraio, ehorzketa eta errausketa dagokien hilkutxarik gabe egitea debekatua dago. 13. artikuluan salbuespenak jasotzen dira. [Galizian](#), bestalde, hilkutxarik gabeko hileta espresak onartu ziren 2023an, hildakoak heriotzatik 12 ordu pasata eta hilkutxarik gabe ehortzi daitezkeela ezarri.

103 [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua onartzen duena](#), 19. artikulua.

104 [ACCO, 40/2011 SERVICIOS FUNERARIOS DEL LLOBREGAT, 64/2015 SERVICIOS FUNERARIOS DEL Penedès](#).



## VIII. BEILATOKI-ZERBITZUAK

Beilatoki-zerbitzuak barnean hartzen ditu gorpua higie eta osasun-baldintza egokietan erakusteko eta beilatzeko zerbitzuak. Zehazki, beilatokia "heriotza-lekutik erreketeta edo ehorzketa-lekura eramane bitartean hilotza izateko prestaturik dagoen hiletategi edo -establezimendua, hilotzak erakutsi eta beilatzeko behar bezala atondua eta eratua.»<sup>105</sup>.

Instalazio horietan, familiek hildakoa beilatzten dute, bisitak jasotzen dituzte eta beste zerbitzu batzuk ere badituzte, hala nola agurretarako espazioak, loreak, aparkalekuak edo beste erraztasun batzuk.

Eragin-eremuak tokiko edo zonako dimentsioa du<sup>106</sup>; izan ere, hil-beilako zerbitzuaren gizaeskaria agurra egingo den tokiko udalerrian gertatzen da, eta bat etorri ohi da hildakoaren bizitokiarekin (edo bizi erreferentziakoarekin).

Beilatokiak hileta-zerbitzuak eskaintzan bereizteko elementu nagusietako bat bihurtu dira; izan ere, beilatzeko unean ehorztetzeko pertsonalak du harreman handiena hildakoaren senide eta gertukoekin, eta horiek instalazioen eta ematen den zerbitzuen kalitatea hobea hauteman dezakete<sup>108</sup>.

105 [202/2004 Dekretuak, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate Alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#), bete beharreko baldintzak eta nahitaezko baimenak ere ezartzen ditu (35. eta 36. artikulua).

106 EAEJANE [424/2023](#), abenduaren 21ekoa; STS 5306/2016 (ECLI:ES:TS:2016:5306) eta 4085/2019 (ECLI:ES:TS:2019:4085). LEA/AVC: [341-SAN-2020 GIPUZKOAKO BEILATOKIAK](#), [592-SAN-2022 VILLBONAKO BEILATOKIA](#); MLBN: [SNC/DC/045/21](#) Albia/Tanatorios Móstoles; [SA MUR/5DC11AD014](#) Ataúdes; [650/08](#) Funerarias Baleares; [R 524/02](#), Funerarias Vigo; [495/00](#), Velatorios Madrid; ACCO: [41/2012](#) Funeraria Fontal; Consello Galego da Competencia: [R 1/2012](#) Tanatorio de Valga; ACREA, [S/01/2021](#), Tanatorios Provincia de Huelva; [S/12/2012](#) Tanatorios de Huelva.

107 Hileta-zerbitzuen tokiko izaera hau normalean udal-eremuarekin bat dator, baina gerta daiteke geografia-esparrua zabaltzea, komunikatzeko dauden bideak direla eta, baita zerbitzuen udalerriz gaindiko esparrua, bai udal-esparrua bai udalerrri, eskualde... baten eragin-esparrua adierazgarritzat hartuz, kasuaren arabera.

108 PANASEF «[2017 Hileta-sektoreko merkatua. Arau-esparrua](#)».

Beilatokiak hileta-zerbitzuaren eskaintzan duen garrantziaren beste adibide bat da hileta-enpresa batzuek "beilatoki" terminoarekin publizitatea egitea erabaki dutela, "ehorztetxea" terminoaren aldean. Ildo beretik, ASOCIACIÓN NACIONAL DE SERVICIOS FUNERARIOS (PANASEF) delakoaren iritziz, funtzio nagusien (gorpua egokitzea edo hilkutxa aukeratzea) eta beilatoki/tanatorio funtzioen arteko bereizketa gero eta lausoagoa da<sup>109</sup>.

Beilatokiaren handizkako eskaria honako hileta-zerbitzuetako enpresa hauek osatzen dute: azken bezeroek eskatuta eta hileta-zerbitzu integral baten esparruan, zerbitzu horiek hirugarren baten jabetzakoa den edo hark kudeatzen duen instalazio batean kontratatzen dutenak, ezin dutelako zuzenean zerbitzua eman a) instalaziorik ez dutelako, b) beilatokia egitea nahi den udalerrian instalaziorik ez dutelako, edo c) udalerrian eskatutako instalazio zehatzik ez dutelako.

Beilatokiaren erabilera oso zabalduta eta finkatuta dago—izan ere, 2020-2023 laurtekoan, EAEn, hileta-zerbitzuen % 96an hiletetan erabili zen—, eta, beraz, hileta-zerbitzuaren funtsezko zati da.

Azken batean, beilatokiaren erabilera oso lotuta dago hileta-zerbitzuen merkatuarekin, eta hura izateak edo ez izateak baldintza dezake gainerako hileta-zerbitzuen kontratazioa.

2024an, EAEn 91 instalaziok eman dituzte beilatoki-zerbitzuak: 8k Araban, 41ek Bizkaian eta 42k Gipuzkoan.

109 PANASEF «[2017 Hileta-sektoreko merkatua. Arau-esparrua](#)».



## 28. Taula. Beilatoki-instalazioak. EAE 2023

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ALBIA (VITORIA-GASTEIZ)	ALBIA (AMOREBIETA-ETXANO, BILBO/BOLUETA, ERMUA*, IURRETA, SANTURTZI)	ALBIA (BERGARA, EIBAR, MURIKU, ZUMAIA)
LARRAZ (AMURRIO, LAUDIO)	ARRATE (BERRIZ)	ARETXABALETA TANATORIOA (ARETXABALETA)
MÉMORA (GUARDIA, MURGIA, OION, VITORIA-GASTEIZ)	BASAGUREN (DURANGO)	ARRASATE BERRIA (ARRASATE)
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA (VITORIA-GASTEIZ)	BIZKAIA (AMOREBIETA, BARAKALDO, GETXO)	CARMONA (AZPEITIA, AZKOITIA)
	ENALTA (BASAURI, BILBO, GETXO/AREETA, GETXO/ALGORTA, MUNGIA)	EGUZKILORE (OÑATI)
	GALARZA (GALDAKAO, DIMA)	ETXEBERRIA (ELGOIBAR)
	MÉMORA FUNEUSKADI (BILBO, BALMASEDA, BARAKALDO, BASAURI, KARRANTZA, GALDAKAO*, GETXO, LEIOA, MUSKIZ, PORTUGALETE*, ZALLA)	HONDARRIBIA (HONDARRIBIA)
	IZARO (BERMEO, GERNIKA)	IRUN (IRUN)
	LARRAZ (ARRIGORRIAGA), AMOREBIETA)	MÉMORA (DONOSTIA/ZORROAGA, DONOSTIA/BENTA BERRI, ERRETERIA, ZARAUTZ)
	LEA-ARTIBAI (BERRIATUA)	MÉMORA FUNEUSKADI (EIBAR, ELGOIBAR)
	SERVISA (BILBO, ERANDIO)	MÉMORA TABISA (IRUN)
	TANADEUSTO (BILBO)	MÉMORA VASCONGADA (DONOSTIA/ERREKALDE, ANDOAIN, DONOSTIA/MORLANS, HERNANI, OLABERRIA, PASAIA, TOLOSA, BILLABONA)
	URIBEFUN (GERNIKA-LUMO, ISPASTER, LEKEITIO)	MÉMORA ZENTOLEN BERRI* (ERRETERIA)
	ZULUETA (BERMEO, MUNGIA*)	MOYUA (OÑATI)
		SAN FELIPE/OJANGUREN (ARRASATE)
		ORBEGOZO (HERNANI)
		OROILORE (BERGARA)
		OYARBIDE (BEASAIN, ORDIZIA, TOLOSA)
		SANTA ISABEL (ZUMARRAGA, LEGAZPI, URRETXU)
		ARRASATEKO UDALA
		DONOSTIAKO UDALA (ALTZA)
		GETARIAKO UDALA
		OIARTZUNGO UDALA
		USURBILGO UDALA

## ZUZENEKO KUDEAKETAKO UDAL-BEILATOKIAK

\*KONTZESIOAK EDO UDAL-ERAKUNDEAREKIN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA

Iturria: Egileak prestatua. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Beilatoki gehienak ekimen pribatuari lotuta daude, baina badira jabetza publikokoak ere, udal batek zuzenean kudeatzen dituenak, edo zeharka ehortzetxe batek kudeatzen dituenak, lizitazio-prozeduraren bidez esleitutako emakida-erregimenean: (MÉMORA FUNEUSKADI, Galdakao eta Portugaleten; ALBIA, Ermuan; MÉMORA VASCONGADA, ZENTOLEN BERRI-Errenterian) edo zerbitzuak emateko kontratu batekin (Mungiako Udala eta F. ZULUETA), baina betiere tokiko erakundeak ezarritako erabilera- eta prezio-baldintzei lotuta<sup>110</sup>.

Zentzu honetan, udalek arreta jarri behar dute udal-titulartasuna daukaten beilatokiaren kudeaketa kanporatzeko erabiltzen diren pleguak prestatzeko orduan, edozein eragileri zerbitzuak baldintza objektiboetan, gardenetan eta diskriminaziorik gabe

emango zaizkiola bermatuko duten klausulak barne hartuta, betiere prestasuna badago eta dagozkion zenbatekoak ordaindu ondoren.

Bestalde, pribatuen artean, Arrasateko SAN FELIPE eta Basauriko MUTUALIDAD SAN PEDRO APÓSTOL (MUFUSAP) mutualitateak beste erakunde batzuek kudeatutako beilatokiaren jabe direla azpimarratu behar da<sup>111</sup>.

OCUK 2021. urtean beilatoki bat 24 orduz alokatzeko prezioa (36 ordukoa ere izatea ohikoa da) 546 € baino zerbait gehiago zela zenbatetsi zuen<sup>112</sup>.

Zuzeneko edo zeharkako kudeaketa duten beilatoki publikoen artean, jarraian 2024an ezarritako prezio publikoen eta tasen lagin bat jasotzen da.

## 29. Taula. Jabetza publikoko beilatokiak: zerbitzu emate tasa eta prezio publikoak 2024

LH	Udala	Kudeaketa	Azalpena	Zenbatekoa (€)
Bizkaia	<a href="#">Ermua</a>	Zeharkakoa emakida	Beilatoki zerbitzuagatik, aretoaren erabilpena, hiltzaren atontzea eta hozteko ganbera barne.	387,1
Bizkaia	<a href="#">Mungia</a>	Zeharkakoa zerbitzuak emateko kontratua	Beilatoki zerbitzuagatik, aretoaren erabilpena, hiltzaren atontzea eta hozteko ganbera barne.	250
Gipuzkoa	<a href="#">Arrasate</a>	Zuzenekoa	Erabileragatik.	72,25
Gipuzkoa	<a href="#">Errenteria</a>	Zeharkakoa emakida	Beilatokia, eguna edo 24 orduko zatikia.	289,97
Gipuzkoa	<a href="#">Getaria</a>	Zuzenekoa	Beilatoki zerbitzuak— egun bat edo biko erabilera.	Egun bat: 188,25 Egun bi: 295,50
Gipuzkoa	<a href="#">Oiartzun</a>	Zuzenekoa	Eskainitako zerbitzu bakoitzagatik, baldin eta zerbitzuak 48 ordu baino gutxiago irauten baitu.	174,06
Gipuzkoa	<a href="#">Usurbil</a>	Zuzenekoa	Beilatoki zerbitzuagatik, egunez egun.	121,57

Iturria: Egileak prestatua, 2024ko udal-ordenantza fiskalak jarraituz.

110 Bai kontratistari operazio-arriskuaren transferentzia egonda —zerbitzu-emakida— zein transferentzia hori gabe —zerbitzu-kontratua— azaroaren 8ko [9/2017 Sektore Publikoko Kontratuena Legea](#), zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratua desagertu da eta gakoa operazio arriskuaren transferentzia dagoen edo ez dagoen datza.

111 [MUFUSAP](#) eta El Correo «[San Pedro Apóstol hileta-mutualitateak bere beilatokia inauguratu du. Basauriko erakundeak hildakoak beilatzeko berezko eraikina duen ezaugarri hauetako lehena da](#)».

112 KONTSUMITZAILA ETA ERABILTZAILEEN ERAKUNDEA, OCU. [Compra Maestra 474 zenbakia, 2021ko azaroa. «Al cruzar la puerta»](#).

Beilatokirik ez duten ehorztetxeek hirugarrenen beilatoki-instalazioetara —haiekin hitzarmenak izan ditzakete— edo udal-instalazioetara jotzen dute. EAEn ehorztetxe horien artean honako hauek dira:

- Bizkaian: CANTÁBRICA, GRUPO INTERFUNERARIAS <sup>113</sup>, UMARAN.
- Gipuzkoan: GIPUZKOA Ehorztetxea<sup>114</sup>, GONZÁLEZ.

Grupo INTERFUNERARIAS eta GIPUZKOA Ehorztetxea izan ezik, gainontzekoak tokiko eragileak dira. Beilatokia zerbitzuaren eskaera handia dela eta, haren kontratazioak gainerako hileta-zerbitzuena baldintza dezake. Zerbitzuen lotura horrek lehiaren aurkako merkatuen itxiera ekar dezake, beilatokia gainerako hileta-zerbitzuak erakartzeko eta eragin-eremuan gainerako eragileen lehia saihesteko tresna gisa erabiltzen denean. Horrela, beilatokiak aktibo estrategiko bihurtzen dira, ustiatzen dituzten hileta-zerbitzuetako enpresei lehiarako abantaila ematen dietenak, eta, ihardetsi ezin direnean, enpresa jabearentzat merkatu boterea dakarrena.

Beilatokiak hileta-zerbitzu osoan hartu duen garrantzia hain da handia ezen, dauden sarrerako oztopoak direla eta, lehiarentzako «ezinbesteko baliabidetzat»<sup>115</sup> hartzen baita. Horregatik

lehiakideen eskura jarri behar dira, baldin eta horiek baliabide horren aurrean bidezko aukerarik ez badituzte (hirigintza-murrizketak adibidez) edo kostu oso handien kontura egin beharko balute<sup>116</sup>.

Edo, bestela esanda, eragile nagusi batek beilatoki “ezinbesteko” baten erabilera beste hileta-enpresa batzuei lagatzeari uko egiteak objektiboki justifikatuta egon behar du, hura ukatzea abusuzko jokabidetzat hartzeko arriskua baitago, merkatuan gailendu behar den “merituen” gatiko lehia leialaren aurkakoa<sup>117</sup>.

Gainera, beilatokiaren erabilera hileta-zerbitzuen merkatuarekin estuki lotuta dagoela kontuan hartu behar da, eta beraz, beilatoki-zerbitzua ezinbestekoa denean justifikazio objektiborik gabe ukatzeak merkatu horretan lehia ezabatzeko gauza den gehiegizko jokabidea izan daiteke.

Dena den, eta aurreko Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak adierazi zuen bezala<sup>118</sup>:

---

«produktuaren premia objektiboa» kontzeptua erabiltzen du «ezinbesteko baliabide edo azpiegitura» nozioaren antzeko kontzeptu bat adierazteko.

113 INTERFUNERARIAS Estatu-eremuko hileta-enpresa multzoa da, haren GRUPO INTERFUNERARIAS, S.L. enpresak bere jarduketa 2017 urtean hasi zuen EAEn; Barakaldon ordezkaritza bat dauka..

114 Donostiako ordezkaritza hau ALBIAko kidea da eta azkeneko honek Donostiako Errekalde auzoan beilatoki/errausketalabe bat hasteko plana egin du.

115 «Ezinbesteko instalazio» kontzeptua Europako Batzordeko [98/C 265/02](#) jakinarazpenean, telekomunikazio sektorean sartzeko hitzarmenei lehiaren arauak ezartzeari buruzkoan honela deskribatzen da:  
«Erabiltzaileetara ailegatzeko eta lehia- kideei haien jarduera garatzeko beharrezkoak diren eta bidezko baliabide batez ordezka ezin daitezkeen instalazio edo azpiegiturak» dira. Kontzeptu hau beste arlotara zabaldu da, beilatoki instalazioetara esateko.  
Bere aldetik, Europako Batzordeko [2009/C 45/02](#) jakinarazpenak-Batzordearen kontrol-lehentasunei buruzko orientazioak, bere [EBFren 102] artikulua aplikazioan nagusi diren enpresen gehiegizko jokabide baztertzailan—

116 ACCO [41/2012](#) Espedientea, FUNERÀRIA FONTAL: «udalerritxikietan, beilatokiak [...] instalazioaren bikoiztasunak beilatoki bakar bat balego baino zerbitzu bakoitzeko batez besteko koste altuagoa ekarriko luke eta, ondorioz, erabiltzaileentzat prezio altuagoa ere. Ekonomiaren ikuspuntutik ez da egoera eraginkorra. ACCOko TCDCren arabera, udalerritxikietan, beilatoki bat monopolio natural ezaugarriak dituen azpiegitura da eta, hortaz, sektore publikoaren esku-hartzea beharrezkoa da, merkatuaren akats potentzial bat zuzentzearen».

117 EBJAK bere 1998ko azaroaren 26ko epaian, C-7/97 Gaia, Bronner [\[ECLI:EU:C:1998:569\]](#), adierazten duen bezala, salmenta edo horniketa ukatzea gehiegikeria da enpresak merkatuan lehia eraginkorra izateko «objektiboki beharrezkoa» den produktu edo zerbitzu batengan eragina badu. Produktu horrek izaera hori dauka merkatuan lehiakideak nagusi den eragilearen salmenta ukapenari aurre egitea ahalbidetzen duten «ordezko erreal edo potentzialik» ez badago.

2009/C45/02 jakinarazpenean erabilitako terminoak, «produktuaren premia objektiboa», egun lehengo «ezinbesteko baliabide edo azpiegitura» (essential facility) nozioa ordezkatu duela dirudi (baldintza hori izendatzeko zena). COMISION GALEGA DE COMPETENCIA. [4/2022 EBAZPENEA - TANATORIO DE POIO](#)

118 Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua. «[Hileta-zerbitzuen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan](#)». Ildo berean, Auzi-

«[...] Dena den, beilatoki bakoitzaren ezinbesteko izaera zehazteko kokatuta dagoen merkatu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dira eta, ostean, aztertu beharko da erabilera ukatetik eratorri daitezkeen lehiaren aurkako jarrerak».

Beilatoki bat ezartzeko gainditu behar diren oztopoen artean, baldintza, karga administratibo eta aginduzko baimen mota asko daude, hala nola, kokapenari, sarrerei, aretoen ezaugarriari, areto kopuruei, eta ekipamenduei (pertsonal, material eta tekniko) dagozkienak.

Horrek guztiak inbertsio handia eskatu dezake – kasu batzuetan, erabiltzaile potentzial kopuruaren arabera, berreskuratu ezin daitekeena– gainera, instalazio horiek eraikitzeke lurralde antolaketa plangintzarekin bat datorren hiri-lursaila izanda<sup>119</sup>. Halaber, irekiera berriak berandutzeko edo geldiarazteko jarduketa judizialak hauteman izan dira<sup>120</sup>.

Zigortu diren lehiaren aurkako jokabideak hurrengoarekin izan dute zerikusia:

- beilatoki-/beila-zerbitzua emateko justifikatu gabeko ukapena (LDLren 2. artikulua)<sup>121</sup>.
- zuzenean edo zeharka prezioak edo beste merkataritza-baldintza batzuk edo ekitaterik

gabeko zerbitzuak ezartzea (LDLren 2. artikulua). Gehiegizko prezioak eta diskriminatzaileak<sup>122</sup>.

- Merkataritza-harremanetan baldintza desberdinak aplikatzea prestazio baliokidetan (LDL-ren 1. eta 2. artikulua)<sup>123</sup>.
- beilatoki/beila-zerbitzu merkatuen banaketa (LDLren 1. artikulua)<sup>124</sup>.
- errausketa- eta beilatoki-zerbitzuen lotura (LDLren 2. artikulua)<sup>125</sup>.

---

tegi Gorenak 3122/2023 Epaian ([ECLI:ES:TS:2023:3122](#)), non, bere 2019ko abenduaren 10ko epaia (6629/2018 Errekurtsoa) Artés beilatokiari zegoenez zehaztuz, lehia agintaritzek instalazio bakoitzaren funtsezko izaera «kasuz kasu» aztertu behar duten adierazten zuen.

- 119 Honen adibide bat ACCOren «[Bartzelonarako hileta-ekipamenduen ezarpen edo zabalkuntzarako plan urbanistiko berezia](#)» plangintzan (2024) aurki daiteke, non kokapen, gutxieneko distantzia eta eraikigarritasun baldintzei buruzko murrizketak adierazten diren.
- 120 LEA/AVC [341-ZEH-2020 EBAZPENA, GIPUZKOAKO BEILATOKIAK](#); ACREA, [S/09/2022 EBAZPENA, AYUNTAMIENTO DE FUENTES DE ANDALUCÍA](#). Gainera, MLBNak gehiegizko auzigintza zigortu du, [MERCK SHARP DOHME, S.A. S/0026/19](#).
- 121 LEA/AVC, [592-ZEH-2022 VILLABONA BEILATOKIA](#); ACCO, [41/2012](#) Funeraria Fontal; Consello Galego da Competencia [4/2022 EBAZPENA - TANATORIO DE POIO](#); ACREA, [S/01/2021](#). Tanatorios Provincia de Huelva; [S/12/2012](#) Tanatorios de Huelva.

- 
- 122 LEA AVC: [341-ZEH-2020, GIPUZKOAKO BEILATOKIAK](#); ACREA, [S/12/2012](#) Tanatorios de Huelva; Consello Galego da Competencia, [R 3/2014 Ebazpena](#) - Tanatorio de Catoira.
- 123 Lehiaren Defentsarako Gaztela eta Leongo Auzitegia, [TDC/SAN/3/2020](#) Servicios funerarios Virgen de la Vega eta [TDC/SAN/15/2017](#) SERFUNLE.
- 124 ACREA, [S/04/2020](#) Ebazpena, Tanatorios de Úbeda
- 125 LEA AVC: [341-ZEH-2020 GIPUZKOAKO BEILATOKIAK](#)

## IX. ERRAUSKETA-ZERBITZUAK

Errausketa-zerbitzua, ehorzketaren ordeztu, hilotzak, hilotz-hondarrak eta gorpuzkiak erretzeko erraustegietan edo atonduetako hileta-establezimendua ematen da, eta instalazio horiek horretarako baimenduta egon beharko dute<sup>126</sup>.

Errausketa-labeak, besteak beste, hilerrietan edo beilatoki ondoan koka daitezke eta hileta-enpresa guztiek ez duten berariazko azpiegitura behar dute: inbertsio bolumena eta haien kostu finko handiak, hirietan ingurumen-murrizketekin batera – baimena behar dute –, oztopo tekniko-ekonomikoak dira, ezarpena geldiarazten dutenak eta lehiarako pizgarriak murrizten dituztenak<sup>127</sup>.

Behin ezarrita, eskala-ekonomiak egoteak hauen erabilera errepikakorra eragiten du, ahalik eta modu errentagarrienean jardun ahal izateko<sup>128</sup>. Horrexegatik, kokapena estrategikoa da: errausketa-labeen % 50a baino gehiago populazio gehiagoko guneeetan dago: Bilbo Handia, Donostialdea eta Araba Erdialdea.

Beilatokia ez bezala, ehorzketa prozesuan errausketa-labea ez da topaketarako edo garrantzi sozialeko lekua. Izan ere, haren ikusgaitasuna garrantzitsua ez denez, ehorztetxeak bakarrik burutu dezaken zerbitzua da, familia han egon beharrik gabe. Pertsona gehienek aukera gutxi edo bat ere ez dute errausketa-labea hautzerako orduan, askotan aukera

bakarra baitago arrazoizko distantzia baten barruan. Hala, horiek aukeratzeko ez du esan nahi hileta-zerbitzu integrala emango denik.

EAEan errausketa ehorzketari nagusitu zaio: 2020-2023 laurtekoan heriotzen % 72a errausketaz baliatu da –2008an % 46a eta 2019an % 69a–. Bestalde, Espainiako batezbestekoa % 45ekoa izan zen 2022 urtean<sup>129</sup>.

Lurrez lurrez, 2023an Bizkaian % 78koa, Araban % 71ekoa eta Gipuzkoan % 70koa izan zen.

Nahiz eta hazkunde-marjina egon, batez ere Araban eta Gipuzkoan, aurreikus daiteke etorkizuneko hazkunde marjinalak proportzio txikitzen izango direla<sup>130</sup>; hori dela eta, jardueraren hazkundera –egungo eragilena edo sartu berriena– beste lehiakideei kenduko zaienaren ondorio izango da eta ez errausketen igoerarena, errausketa eskari globala finkoa baita.

Errausketa-tasa altuak errausketa-labeak –beilatokiaren legeztatu– instalazio estrategikoekin pareka litezkela adierazten du, hileta-enpresek hileta-zerbitzu integral baten osagai izan beharko luketenak<sup>131</sup>. Hori dela eta, beilatokiei buruz adierazitakoa baina egokituta –esanez denez, gaur egun haren aukeraketak ez du hileta-zerbitzu integralaren aukera baldintzatzen– eta, oro har, errausketa-labeen aplikatuko litzaieke.

Sektorea bereziki eskaintzatik abiatutako tokiko merkatuen eredu baten arabera antolatzen da<sup>132</sup>. Ehorztetxeek beren errausketa-labearen bidez

126 [202/2004 Dekretuak, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena](#), definizio hau jasotzen du eta bere 37-39. artikuluetan haien instalazio, errausketen artxibatze eta beharrezko osasun-baimenak arautzen ditu.

127 Honen adibideetako bat ACCOren hurrengo erregulazio-txostenean dago. «[Bartzelonarako hileta-ekipamenduen ezarpen edo zabalkuntzarako plan urbanistikoa berezia](#)» (2024), non errausketa-labeen ezarpena erabilera industriarako kalifikatu den lurzorura mugatzea zalantzan jartzen den.

128 Bideragarria izateko, labe batean 800-1000 errausketa egin behar dira urtean. COMPETITION AND MARKETS AUTHORITY. CMA. [Funerals market study](#) (2020).

129 PANASEF. [2023 Hileta-sektorearen erradiografia](#).

130 Errausketa-tasa azkar igotzen da beren lehen errausketa-labea instalatzen duten herrietan, baina hirietan azkarrago instalatu ohi dira. PANASEF. [2020 Hileta-sektorearen erradiografia](#).

131 ACCO. [Hileta-sektorearen analisisa \(ES 28/2022\)](#).

132 PANASEF. [2023. Espainiako errausketa-instalazioei buruzko txostena](#).

eskaintzen dute zerbitzua, eta instalazio hori ez dagoenean, gertuen dagoen errausketa-labera edo ehorztetxekin akordioa duen errausketa-labera bideratzen da.

Ohikoa da zerbitzu hori gainerako hileta-zerbitzuak eman diren herrietakoak ez diren beste herri batzuetako instalazioetan ematea, herri horretan errausketa-laberik ez delako. Horregatik, errausketa-zerbitzuen merkatuaren eremu geografikotzat jo daiteke zerbitzu hori ematen duten instalazioak dauden udalerrriaren eragin-eremua<sup>133</sup>.

2023an, errausketaren batezbesteko prezioa – hilerri-zerbituekin lotura pixka bat duen kostua– 612 €koa izan zen, ehorzketa baino apur bat merkeagoa (668 €)<sup>134</sup>. Donostiari dagokionez, 678 €koa da (ehorzketa 798 €) eta Bilbon 405 €koa (ehorzketa 545 €).

Zuzeneko eta zeharkako kudeaketako errausketa-labe publikoei dagokionez, jarraian 2024an ezarritako prezio publiko eta tasa lagina jasotzen da.

### 30. Taula. Errausketa-labe publikoak: errausketa-zerbitzu emate tasa eta prezio publikoak. 2024

LH	Udala	Kudeaketa	Zenbatekoa (€)
Bizkaia	<a href="#">Bilbao</a>	Zuzena	463,5*
Bizkaia	<a href="#">Ermua</a>	Zeharkakoa-Emakida	353,45
Bizkaia	<a href="#">Mungia</a>	Zeharkakoa-Emakida	450
Gipuzkoa	<a href="#">Arrasate</a>	Zuzena	356,93
Gipuzkoa	<a href="#">Azkoitia</a>	Zuzena	453,31**
Gipuzkoa	<a href="#">Donostia-San Sebastián</a>	Zuzena	590,47
Gipuzkoa	<a href="#">Errenteria</a>	Zeharkakoa-Emakida	378,8

\*Sartzen dena: errauts-ontzia, zorroa, gordailuan egotea eta ibilgailua hilerrian errausketa-lekura eramateko, eta errautsak Oroitzapenaren Basoan uztea, hala eskatzen bada. Kontratututako bolumenaren arabera deskontuak ditu.

\*\* errauts-ontzia sartzen da.

Iturria: Egileak prestatua, 2024ko udal-ordenantza fiskalak jarraituz

Errausketa-labeen handizkako eskaria errausketarako instalaziorik ez dituzten eta hirugarren bat kudeatzen duen edo huraren jabe den instalazio batean ematen duten hileta-zerbitzu enpresek osatzen dute, zerbitzu integralaren esparruan.

2023 urtean, EAEn 29 errausketa-labe aritu dira: 4 Araban, 13 Bizkaian eta 12 Gipuzkoan. Gainera, Arabako Errioxa errausketak Logroñoeko Udal Errausketa-labeen egiten ohi dira.

2009 urtearekin konparatuta, 3 instalazio berri daude: 1 Bizkaian (URIBEFUN) eta 2 Gipuzkoan (IRÚN eta OYARBIDE Tolosa).

133 MLBN [C/1044/19 Espedientea](#). MÉMORA SERVICIOS FUNERARIOS, S.L.U. sobre SERVICIOS FUNERARIOS MONTERO, S.A.; [C/0765/16 Espedientea](#) CATALANA OCCIDENTE/GRUPO PREVISORA BILBAINA/GRUPO FUNERARIO ARROITIA.

134 KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ERAKUNDEA, OCU. [Hileta-zerbitzuen kostua](#) (2023/10/31).





## 31. Taula. Errausketa-labeko instalazioak. EAE 2023

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
ALBIA (VITORIA-GASTEIZ)	ALBIA (ERMUA*, SANTURTZI)	CARMONA (AZKOITIA*)
LARRAZ (LAUDIO)	BASAGUREN (DURANGO)	IRUN (IRUN)
MÉMORA (VITORIA-GASTEIZ)	BIZKAIA (BARAKALDO)	MÉMORA (ZARAUTZ)
POMPAS FUNEBRES LAUZURICA (VITORIA-GASTEIZ)	GALARZA (DIMA)	MÉMORA FUNEUSKADI (ELGOIBAR)
	MÉMORA FUNEUSKADI (BILBO, GALDAKAO*, PORTUGALETE*, ZALLA)	MÉMORA VASCONGADA (DONOSTIA/ERREKALDE, OLABERRIA, BILLABONA)
	SERVISA (ERANDIO)	MÉMORA ZENTOLEN BERRI* (ERRENTERIA)
	URIBEFUN (ISPASTER)	OYARBIDE (BEASAIN, TOLOSA)
	ZULUETA (MUNGIA*)	ARRASATEKO UDALA
	SERVICIOS FUNERARIOS DE BILBAO, S.L.	DONOSTIAKO UDALA

## ZUZENEKO KUDEAKETAKO ERRAUSKETA-LABE MUNIZIPALAK

\*KONTZESIOAK EDO UDAL-ERAKUNDEAREKIN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA

Iturria: Egileak prestatua. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Lurralde hiriburuetan, haien inguruan populazioa biltzen denez, errausketa-instalazio bat baino gehiago kokatzen da: 3 Vitoria-Gasteizen, 2 Bilbon eta 2 Donostian.

EAEn MÉMORA taldeak (% 38a) eta ALBIAk (% 10a) ia instalazioen erdia (14) kudeatzen dituzte eta horietatik lau emakida publikokoak dira.

Beilatoki gehienak ekimen pribatuari lotuta daude, baina jabetza publikokoak ere badaude, zuzenean udal batek kudeatuak, edo zeharka kudeatua, lizitazio-prozesu baten bidez ehortzetxe bati esleitua, bai emakida araubidepean edo zerbitzuak emateko kontratu batekin (Mungiako Udala eta F. ZULUETA), baina betiere tokiko erakundeek ezarritako erabilera-eta prezio-baldintzen mende.

Zentzu horretan, udalek arreta jarri behar dute udal-titulartasuneko errausketa-labeen

kudeaketa kanporatzeko oinarri gisa erabiltzen diren pleguak prestatzerakoan, edozein eragileri zerbitzuak baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan ematea bermatuko duten klausulak barne, betiere eskuragarri badaude eta dagozkien zenbatekoak ordaindu ondoren.

Errausketa-zerbitzua beilatoki-zerbitzuetara lotzearekin lotuta diren lehiaren aurkako jokabideak hauteman dira. Lotura horrek beste eskaintzaile batengana jotzea eragozten zuen, merkatua itxiz<sup>135</sup>.

135 LEA/AVC: 341-ZEH-2020 GIPUZKOAKO BEILATOKIAK.



## X. HILERRI-ZERBITZUAK

Hilerri-zerbitzuek hilkutxa eta koroa deskargatzen direnetik ehortzi edo lurperatu arte egiten direnak hartzen dituzte, bai eta hilotz-ondarrak gutxitzen dituztenak ere, gorpuak haragia galdu ostean hezurak manipulatu, nitxo eta hilobietan dagoen espazioa gutxiago hartzeko<sup>136</sup>.

Udalerri guztiak hilerri-zerbitzuak ematera derrigorputa daude, bai banaka edo elkartuta, tokiko erregimeneko araudian ezarrita dagoen bezala<sup>137</sup>.

Hilerri-zerbitzuak bi kontzeptu barne hartu ohi ditu: ehorzketa zerbitzua eta ehorzketa unitatearen kostua, baina udal batzuek tasa gehigarriak ere ordaintzea eskatzen dute, mantentze-lanekin, hilarriak mugitzearekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

2023 urteko ehorzketen batez besteko prezioa 668 € izan da, kopuru hau udalerritik udalerrira aldakorra bada ere<sup>138</sup>. Donostiari dagokionez, prezioa 798 € da eta Bilbon, 545 €.

Zerbitzu publikoa tokiko erakundeak zuzenen eman dezake, edo tokiko merkataritza-sozietateen bidez, edo ehorztetxeen kudeaketa pribatuaren bidez (normalean emakida-kontratuen bidez, baina baita, kasu batzuetan, kapital pribatu minoritarioa duten sozietate mistoen bidez ere), eta prezioak eta tasak Udalak baimendutakoak dira.

EAEn, eta Gipuzkoan bereziki, MÉMORA taldea hilerri kudeaketan nabarmentzen da<sup>139</sup>.

Puntu honetan, udalek kontu izan behar dute udal titulartasuneko hilerrien kudeaketa kanpora ateratzeko pleguak prestatzeko orduan, klausulak barne, edozein eragileari zerbitzuak baldintza objektibo, garden, eta ez diskriminatzaileetan ematea bermatu behar dituztela, betiere eskuragarri badaude eta dagozkien zenbatekoak ordaindu ondoren.

Udalek ere hilerrietarako ehorztetxe eta erabiltzaile guztiei sarbidea errazteko behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte, batez ere titulartasun publikoa dutenera (nahiz eta enpresa pribatuek kudeatu), sarrera hori baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan izanik. Guzti hau hileta-zerbitzuen merkatuan eta hilerri-zerbitzuan merkatuan bertan ere lehia eraginkorra handitzeko, interes orokorraren onerako eta LDLren aurkako jardunbideak egitea saihesteko.

Izan ere, atzemandako lehiaren aurkako jardunbideak nagusitasun egoera abusuarekin lotu izan dira, hildako pertsonen familiek kontratatutako enpresei hilerria sartzeari ukatzean (hilarriak, hilobiak grabatzea...) eta, horrela, lotutako merkatuetako lehia nabarmenki mugatzean<sup>140</sup>.

136 MLBN [C/0928/18 GRUPO CATALANA OCCIDENTE/ SOCIEDADES ADQUIRIDAS](#).

137 [7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena](#), hilerri-zerbitzuak derrigorrez eman behar diren zerbitzu publikoak bezala itxuratzen ditu ( 25.2.j eta 26.1.a artikulua). [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen sanitate alderdiei buruzko Errege-lamendua onartzen duena](#).

138 KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ERAKUNDEA, OCU. [Hileta-zerbitzuen kostua](#) (2023/10/31).

139 Bere enpresa den LANDARRI, S.L. bitartez, hilerri-kudeaketa integrala bideratuta dagoena, hurrengokoak kudeatzen ditu, besteak beste: Errenteria, Alegi, Andoain, Anoeta, Ataun, Idiazabal, Leaburu, Oiartzun, Ordizia, Mutiloa, Villabona, Zerain, Belauntza.

140 MLBN. [SAMAD/01/2016 CEMENTERIOS DE LEGANÉS](#)

## XI. BESTELAKO OZTOPAK: OSPITALEAK ETA EGOTZIAK

EAEn, 2020-2023 laurtekoan, heriotzen % 68 ospitalean eta egoitzetan gertatu dira; horrela toki horiek hileta-zerbitzu potentzialak lortzeko lekua aproposak edo «zama-ahoak»<sup>141</sup> bihurtzen dira, informazioz hornitzeko leku bezala eratu daitezkenak, hildakoen senideen eta ehorztetxeen arteko transakzioak erraztuz. Hori dela eta, enpresa jakin batzuei mesede egin liezaiekete, lehiarako abantaila jakin batzuk emango balitzazkie kasuan, eta lehiaren aurkako jardunbideak agertzea eragin lezakete.

Gauzak horrela, ospitale eta egoitzek lehianutraltasun<sup>142</sup> zorrotzeko jokabide aktiboa hartzen ez badute, «hesizain» edo *gatekeepers*-tzat har daitezke –hileta-zerbitzuen merkatuaren zati bateko sarbidea arautzen dutenak–, bai eta bitartekarizat ere –hildakoaren familiaren eta zerbitzu horiek ematen dituenaren artean–.

Horrela, lehiarako arriskua hautematen da; izan ere, erakunde horiek hileta-enpresa jakin batzuk lagundu edo diskriminatu ditzakete, eta horrek merkatua ixtea edo merkatuaren garapen naturaletik kanpoko zerbitzuen bilakaera ekarriko luke<sup>143</sup>.

Jokabide horiek komisioak edo bestelako ordainsariak ordaintzearekin lotu ohi dira, kalte handia eginez hileta-sektoreko lehiari, bai eta, azken batean, familiei ere, eskaintza jakin batera soilik bideratzen badira, eta beste aukera batzuk izateko aukera kentzen bazaie.

Gainera, merkatu-banaketa dakarten nahitazeko esleipenak eta txandak saihestu behar dira, hortaz, LDLaren 1. artikulua araberako lehiaren aurkako jardunbideak direnak<sup>144</sup>.

Aipatutako jardunbideez gain, ehorztetxeek aukera dute egoitza eta ospitaleetara joateko eta bereziki kaltebera den egoera batean diren bezeroengana iristeko, edo, haien zerbitzuen preskriptore gisa komisio baten truke diharduten zentro horietako langileez baliatzeko. Bezeroak une egokian berehala atzemateak beste enpresa batzuk bilatzeko etsiarazle da eta kaltegarria da merkatu horretako lehia egokirako<sup>145</sup>.

Inguruabar horiek guztiak direla eta, lehiaren agintariek alde egiten dute ospitale eta egoitzetan ehorztetxetako zerbitzuak kontratazioa sustatzeko jarduerak debekatzeko –zerbitzuen eskatzaileen hautatzeko aukerak mugatzen baitituzte–, hala nola<sup>146</sup>:

141 Beste neurri batean, «zama-aho» egoera honetan beste erakunde aurki daitezke, bere eginkizunak betetzerakoan hileta-zerbitzuak eman edo bideratu behar dituztenak (ongintza, biltze judizialak, laguntza-neurri juridikoak hornitzea...).

Hilotz-biltze judizialei dagokionez, ikus MLBN, [2014ko URR-IAREN 3ko TXOSTENA, 20/2013 LEGEAREN, ABENDUAREN 9koa, MERKATU-BATASUNA BERMATZEARI BURUZKOA, HILOTZ-BILKETA JUDIZIALARI BURUZKOA, 28. ARTIKULUAREN BABESEAN AURKEZTU ZEN ERREKLAMARIOARI BURUZKOA \(UM/037/14\)](#).

142 Lehia-neutraltasun printzipioaren arabera enpresek merituen bidez lehiatu behar dituzte, beren jabetza edo izaera juridikoa kontuan hartu gabe, eta desabantaila desegokiei esker abantailak izan gabe. ELGA, Lehia-neutraltasunari buruzko Kontseiluaren gomendioa, [OECD/LEGAL/0462](#).

143 ACCO, [40/2011, Servicios Funerarios del Llobregat](#); [28/08, Asociación de Funerarios de Lérida](#).

144 MLBN, [440/98 Espedientea, Funerarias Tenerife](#); [338/93 Espedientea, Funerarias del Ampurdán](#).

145 MLBN, [C85/04 INTUR/EURO STEWART](#). ACREAko hurrengo txostenean kontratazio publiko baten esparruan sartutako lehiaren murrizketa larrien analisi sakona egiten da: [1/10/2023 TXOSTENA, PA 82/2022 PROZEDURARI, SEVILLAKO EROSKETA ZENTRALARI ESLEITUTAKO ZENTRUEN \(...\) HILETA-ZERBITZUEN HUSPIAPENERAKO KONTZESIOARI BURUZKOA, DAGOKION HAUTEMANDAKO LEHIAREN MURRIZKEI BURUZKOA](#).

146 Competition and Markets Authority, CMA. [The Funerals Market Investigation Order 2021; Funeral Markets Investigation. Final Report](#). Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Osasun eta Politika Sozial Ministerioa «[Hileta-zerbitzuei buruzko azterlan Espainian](#)», 2010ko ekainaren 28koa. ACREA, [Hileta-zerbitzu sektorean sarrera errazteko eta lehia](#)

- ehorztetxeak ordainketak, opariak edo bestelako onurak egiteko akordioak, erakunde horrek ehorztetxera zerbitzuak bidaltzeko pizgarri gisa uler daitezkeenak.
- ehorztexe baten zerbitzuak modu eksklusiboan edo nabarmenean sustatzen dituzten edo beste enpresa batzuen gainera lehentasuna ematen dioten dokumentuak ekoiztea, pazienteei, egoiliarrei eta/ edo senideei zuzendutakoak, era horretan bezeroek hileta-zerbitzuak nolabait erakundeak bermatuta daudela pentsa dezaten.
- edozein hileta-eragileren bulego iraunkorrak izatea.

Nolanahi ere, ez dago araudi bat egoitzetan hileta-zerbitzuei buruz ematen den informazioa arautzen duena, ezta hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen instalazio horietarako sarbideari buruzkoa ere, edota zentroetako langileek preskriptore gisa duten jarduna arautzen duenik ere.

Hala eta guztiz ere, EAEn, egoitzek eta ospitaleek heriotza kasuan burutu behar diren jokabideak<sup>147</sup> biltzen dituzten protokoloak dituzte. Gehienez ere senideei edo interesdunei informazioa dohain, argi eta eskuragarri eman behar zaie, hainbat bitarteko eta euskarri bitartez –besteak beste, idatziz eta/ edo bitarteko elektronikoen bidez– eragileari buruz eta hileta-zerbitzuen eskaria zer produktutara bidera dezakeen askatasunez erabakitzen laguntzeko.

---

[sustatzeko gomendioak](#), aipatzen du ospitaleak eta adineko pertsonen egoitzak zerbitzu hauek eskatzen dituzten herri-tarrentzat benetako informazio-zabaltze eta gardentasun tokietan bihurtzeko beharra, hurrengokoa barne har dezan: «[...] ospitaleak, adineko pertsonen egoitzak eta bestelako instituzioak eragile jakin batzuen preskriptore bihurtzeko aukera –besteen kalterako– debekatzeko, hortaz biztanleriaren eragile eta zerbitzuak aukeratzeko askatasuna babestuz eta hileta-enpresa arteko lehia sustatuz. Toki horiek aipaturakori buruzko informazio-neurriak ezar ditzakete».

147 [126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa](#). 36i artikulua.

## XII. ONDORIOAK

**LEHENA:** Hileta-zerbitzuetan pertsona bat hiltzen denetik ehorzketa edo errausketa gertatu arte egiten diren jarduera guztiak sartzen dira.

**BIGARRENA:** 1996an hileta-sektorea liberalizatu zen, eta gaur egun lege-esparru konplexu baten mende dago, emandako zerbitzuen aniztasunak eta heterogeneotasunak eraginda. Hala ere, indarrean dagoen araudia eguneratzea beharrezkoa da, batez ere hileta-zerbitzuen arlokoa, gardentasun gehiago bermatzeko eta benetako aukeratzeko askatasuna babes dezan.

**HIRUGARRENA:** Hileta-zerbitzuei dagokienez, hurrengoko merkatuak bereizten dira: hileta-zerbitzu integralen txikizkako merkatua eta handizkako merkatu hauek: (i) garraioa, (ii) beilatokia, (iii) hilerria eta (iv) errausketa.

Halaber, produktu osagarriek (lore-apaingarriak, hilarriak eta harrizko bestelako elementuak, hilobiak apaintzeko elementuak, etab.), heriotza-aseguruek eta osasun- eta geriatría-zerbitzuek lotutako merkatuak osatzen dituzte.

Horrela, merkatuen arteko harremanaren ondorioz, merkatu batean garatutako jokabideek beste merkatu batzuen lehia-dinamika erabat baldintzatu dezakete; adibidez, beilatokiko handizkako zerbitzu bat ukatzeak hileta-zerbitzu integrala ez ematea ekar dezake, eta zerbitzu aseguruak ehorztetxe jakin batera bideratu behar izatea.

**LAUGARRENA:** Hileta-zerbitzuak sentsibilitate pertsonala eta soziala bereziko baldintzetan ematen dira, eta baldintza horiek prezioaren eragina apaltzen dute; gainera, eskaria berehala ase behar da, eta, batzuetan, aurreikusi gabe ere bai, eta eskaintzak alderatzeko gaitasuna txikia da.

Ezaugarri horiek bereziki jokatzen dute zerbitzuaren eskatzailea partikularra denean. Aldiz, ez dute hain errotiko eraginik aseguru-etxeek –heriotza-aseguruen ondoriozko ezbeharrei erantzuteko– eta hiletamutuek –mutualisten eskaerei erantzuteko– tarteko hileta-zerbitzuak kontratatzean.

**BOSGARRENA:** Ehorztetxeek hileta-zerbitzuak ematen dituztenak dira, eta familia enpresak –tamaina txikikoak enpresa handiak eta hileta-taldeak izan daitezke.

Enpresa-kontzentrazioak eta aseguru-etxeekin integrazio bertikalak sektorearen bilakaera definitzen dute 2009-2024 denboraldian. Enpresa mugimenduen artean, nabarmengarria da FUNEUSKADI eta VASCONGADA enpresa liderrak MÉMORA taldera erantsi direla eta azken hau OCCIDENT aseguru-etxearekin integratu dela.

Horrek MÉMORA taldea 6 eskualde-merkatuen enpresa-buru bihurtu du, % 40 baino gehiagoko merkatu-kuotekin.

**SEIGARRENA:** Merkatu-kuoten berrikuspen batek kontzentrazio-maila altuak adierazten ditu –bereziki, Arabako Kantaurialdean eta Donostialdean nabarmentzen dira, enpresa bakar batek merkatuaren % 85 baino gehiago biltzen baitu– eta aztertutako eskualde-merkatuetan bost operadore nagusi baino gehiago ez daude.

**ZAZPIGARRENA:** Aseguru-etxeen eta ehorztetxeen integrazio bertikalaren ondorioz, haien aseguratuentzako zerbitzuak taldeko ehorztetxeetara bideratzen dira, eta hori oztopo ia gaindiezina da ehorztetxe lehiakideentzat.

Ildo horretan, behar-beharrezkoa da nahi den ehorztetxea aukeratzeko askatasuna bermatzea.

**ZORTZIGARRENA:** EAEn, aseguratutako zerbitzuak hileta-zerbitzuen erdia dira, baina horien banaketa heriotza-asegurua eremu baten sartze mailaren arabera da.

**BEDERATZIGARRENA:** Beilatokia emandako hileta-zerbitzuen % 96etan erabili da EAEn 2020-2023 denboraldian

Ehorztetxe gehienek beilatokia dute, baina, hala ere, batzuetan handizkako merkatura jo behar izaten dute, eta ezinbestekoa da beilatoki eskuratze horretan justifikatu gabeko ukapenak eragin ditzakeen oztoporik ez egotea. Eta hori horrela da beilatokia ezinbesteko instalaziotzat har daitekeelako, lehiakideen eskura jarri behar dena, baldin eta lehiakideek ez badute baliabide horren arazoizko alternatibarik.

**HAMARGARRENA:** 2020-2023 laurtekoan, errausketak % 72ra iritsi dira.

Sektorea bereziki eskaintzatik abiatuta garatutako tokiko merkatuen eredu baten arabera antolatzen da. Ehorztetxeak beren errausketa-labearen bidez eskaintzen dute zerbitzua, eta instalazio hori ez daukatenean, gertuen dagoen errausketa-labera edo ehorztetxearekin akordioa duenara bideratzen da.

**HAMAİKAGARRENA:** 2020-2023 laurtekoan, EAeko heriotzen % 68a ospitale eta egoitzetan gertatu dira eta, hortaz, instalazio hauek hileta-zerbitzu erabiltzaile potentzialak lortzeko lekuak edo «zama-ahoak» bihurtu dira. Hori dela eta, garrantzitsua da erakunde haiek lehia neutraltasunean aritzea, hileta-eskaeratan desbiderapenik egon ez dadin.

**HAMABIGARRENA:** Lehiaren aurkako jardunbideek eragina izan dute, bereziki, beilatoki-zerbitzuetan. Zerbitzu horietan zigortu egin dira beilatokiko handizkako zerbitzua justifikaziorik gabe ukatzea,

eta diskriminatzaileak eta bidezkoak ez diren prezioak ezartzea, errausketa-labea kontratatzeke betebeharra ezartzea, eta abar.

Era berean, kolusio-jarduerak hauteman dira, hildakoak lekuz aldatzea oztopatzen duten baldintzak ezartzearekin lotuta, bai eta abusuzko jarduerak ere, hau da, kontratatutako enpresei hilerrira sartzea ukatzea.

## XIII. GOMENDIOAK

**LEHENA:** Hileta-zerbitzuei buruzko arau-esparru bat garatzea, erregulazio ekonomiko onaren printzipioei egokitua –sektorearen eraldaketarekin eta gizartean sortutako aldaketekin bat datorrena– merkatu horretan lehia eraginkorra egongo dela bermatuko duena, kontsumitzaileak askatasunez aukeratu duela ziurtatuko duena eta hileta-zerbitzuen eta haien prezioen gaineko gardentasuna indartuko duena.

**BIGARRENA:** Hilotzen Osasun Poliziaren arloko araudi autonomikoa eguneratzea, gizarte-, osasun- eta ingurumen-premien bilakaerara egokituz; izan ere, egoera kontuan hartuta, hilkutxa derrigorrezkoa ez izatea jaso daiteke.

**HIRUGARRENA:** Kontsumitzaileen babesa hobetzeko legezko konponbideak izatea kontuan hartzea, hileta-zerbitzu bat kontratatzen den egoera premiatsu eta emozionalek kontsumitzaileok egoera bereziki ahulean jartzen baitituzte.

**LAUGARRENA:** Ehorztetxeek erabiltzaileari emandako informazioa kontrolatzea: prezioa, zerbitzuak nahitaezkoak diren ala ez, eta hileta-enpresa aukeratzeko askatasuna heriotza-asegurua izanez gero; kasu horretan, heriotza-asegurua eskaintzen dituzten aseguru-etxeen jarraipena ere egin beharko litzateke.

**BOSGARRENA:** Ehorztetxeek, beren instalazioetan, argi eta garbi eta hainbat bitarteko eta euskarriren bidez, prezioen zerrenda banakatuak argitara eman ditzaten zaintzea.

**SEIGARRENA:** Heriotza-asegurua dagoen kasuetan ehorztetxea aukeratzeko askatasuna benetan bultzatzea:

- aseguru-etxeak proposatutako ehorztetxea ez den beste bat aukeratzen duenari eta aseguru-etxeak adierazitako ehorztetxea bere gain harzten duenari laguntza pertsonal eta finantzario bera emango zaie, baldintza berdinetan.
- ehorztetxe gai guztiei hileta-zerbitzuak ematea ahalbidetu, eta ehorztetxe jakin bat izateko ukapena behar bezala justifikatuta egon behar da.

**ZAZPIGARRENA:** Aseguru-etxeei betebeharra ezarri, hartzaileri, senideei edo oinordekoei kostu xehatua jakinarazteko, emandako zerbitzu bakoitzaren arabera banakatutako zenbatekoekin, eta dagozkien fakturak helarazita. Honek, hala balegokio, kontratatutako polizaren erabili ez den zenbatekoa erreklamatzeko bermatuko luke.

**ZORTZIGARRENA:** Hileta-zerbitzua ematen dutenekin batera osatutako heriotza-asegurua merkaturatzen dituzten aseguru-etxeei dagokienez, araudi murriztaileagoa bultzatzea, beren jarduketan askatasuna eta hileta-zerbitzuen kontratazioan neutraltasuna bermatzeko.

**BEDERATZIGARRENA:** Hileta-mutualitateei dagokienez, haien neutraltasuna zaintzea, mutualisten aukeratzeko askatasuna ez baldintzatzeko.

**HAMARGARRENA:** Hileta-enpresen eta heriotza-aseguru-etxeen arteko kontzentrazio horizontala eta integrazio bertikala gehiegizkoa ez dela zaintzea, erakunde integratuen eta independenteen negoziazioa-ahalmenean desoreka handia saihesteko, hori guztia hileta-zerbitzuen merkatuetan lehia bermatzeko.

**HAMAIKAGARRENA:** Hileta-enpresa edo talde batek merkatu adierazgarriaren % 40a baino gehiago biltzen duten merkatuak behatzea.

**HAMABIGARRENA:** Kontzentrazio-eragiketen eta integrazio bertikalen bidez lotutako merkatuen bereganatzea monitorizatzea; bereziki, aseguru-etxeei eta ehorztetxeei dagokiena, hileta-merkatuan sartzeko oztopoak sor baitaitezke, batez ere aseguru-etxeen bidez kontratatzen diren hileta-zerbitzuen ehunekoa kontuan hartzen bada.

**HAMAHIRUGARRENA:** Beilatoki-zerbitzuen eta gainerako hileta-zerbitzuen arteko lotura kontrolatzea, instalazioa zerbitzua emateko aukera bakarra denean.

**HAMALAU GARRENA:** Enpresa lehiakideei beilatokietarako sarbidea erraztea, baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan.

**HAMABOSGARRENA:** Enpresa pribatuek zeharka kudeatzen dituzten instalazio publikoetarako sarbidea ziurtatzea, baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan, eta baldintza horiek ere dagokion lizitazioa zuzendu behar dute.

**HAMASEIGARRENA:** Hileta-instalazio nagusietarako sarbidea bermatzea, baldintza objektibo, garden eta ez diskriminatzaileetan, horrela ehorztetxeek (independenteei eta integratuei) eremu geografiko jakin batzuetan nagusi diren erakundeekin (integratuta izan ala ez) lehiatu ahal izateko.

**HAMAZAZPIGARRENA:** Administrazio publikoek merkatu-banaketaekin eta enpresen bazterketarekin pareka daitezkeen txandak ezartzea saihesteko irizpideak ezarri behar dituzte.

**HEMEZORTZIGARRENA:** Ospitaleak, egoitzak eta antzeko beste erakunde batzuk beste eragile ekonomiko batzuen kaltetan operadore jakin batzuen preskriptore bihurtzeko debekua sartzea, era horretan zerbitzu-emaileak eta zerbitzuak askatasunez aukeratzea babestuz eta ehorztetxeen arteko lehia erraztuz.





Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

**Ercilla 4, 2º 48009 BILBO**

**Tel. 944 032 800**

**[www.competencia.euskadi.eus](http://www.competencia.euskadi.eus)**

**[infocompetencia@avdc.eus](mailto:infocompetencia@avdc.eus)**